

hh
hik hasi

Eduard Valloryri elkarrizketa
Jazarpena eskolan
Egokitzapen-aldia, denon ardura
Euskara biziberritzeko ahaleginean
Gorputza ikaskuntza-prozesuan
Ekainberri museoa
Iker Iribarria



KUBAN IKASIAK

Bidaia

Francesca Sanna



Tragediatik eta anabساتik ihes egin duen familia baten gorabeherak.

AURKIBIDEA

GAIA / 10

KUBAN IKASIAK

Apirilean Euskal Herriko 60 hezitzaile joan ziren Kubara Hik Hasik antolatutako bidaia pedagogikoan. Habanako eskolak bisitatu zituzten: haur eskolak, gorren eta autisten eskolak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentroak, unibertsitate-aurrekoak eta unibertsitatea bera. Han ikusi eta ikasitakoak kontatzen dira aldizkari honetan.

ELKARRIZKETA / 18

EDUARD VALLORY

Praktika pedagogikoen berrikuntzan eta hobekuntzan aditu bihurtu da Vallory azken urteetan. Hezkuntza arloan kultura aldaketa sustatzeko xedez eta datozen belaunaldiak bizitzarako eta elkarbizitzarako prestatzea jomuga izanik, Escola Nova 21 programa sortu zuen duela bi urte. Dagoeneko ia 500 ikastetxe atxikitu dira egitaspora, euren zentroetan hobekuntza-prozesuak martxan jartzea helburu hartuta.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainar Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-03-26).
Kopurua: 3.200 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Euskal hezkuntzaren zoru etiko eta pedagogikoa

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Kubako hezkuntza-sistema

18 ELKARRIZKETA

EDUARD VALLORY

“Eskola bat ez bada ahalduntzailea eta transformatzailea, zerbait ez da ondo egiten ari, eta aldatu egin behar du”

26 EKARPENAK 1

Eskola- eta lan-jazarpena

28 EKARPENAK 2

Egokitzapena, guztion ardura

32 EKARPENAK 3

Euskara biziberritzeko ahaleginean

36 GALDEIDAZU

AMAIA NAVASCUES eta MAIDER URRUTIA

Zer garrantzi du gorputzak ikaskuntza-prozesuan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Ekainberri museoa

42 ATZEKO ATETIK

Iker Irribarria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



LAN HAU
TALDEON EGIN
BEHARKEO DUDE



TALDE LANAK
ENTENTEN HASTEKO BALIO
DU, ETA BAI DUTZEN
ETA ADOSTEN HASTEKO



KONPROMISOA
ESKATZEN DU,
BESTERGANAKO
EGOKIETUA



TALDE LANIA BEHAR
BEHARRERAKO DA
JENDARE HONETAN



RRRRRRRIIIINGG!!



GAUEKO JABE
GAREN GURE LANALDEKO
BILERA ETA!

Bai,
HASTEKO GARA?



ITXOIN
JONE RATION
FANTA DA,
KLASEA TUEIN
ORDAIN AGITE



BANDA
ABISATERRA

Euskal hezkuntzaren zoru etikoa eta pedagogikoa

editoriala

HEZKUNTZA NOLA HOBETU LITEKEEN GOGOETA EGITEKO ETA ONDO FUNTZIONATZEA ERAGOZTEN DIGUTEN INERTZIAK GAINDITZEKO BETAURREKO BERRIAK BEHAR DITUGU.



Hik Hasik hezkuntza-proposamena aurkeztu eta handik sei hilabetera, apirilaren 21ean, hausnarketarako jardunaldi irekia egin du Donostiako EHUUn. 2016-17 ikasturtean Hik Hasiren talde iraunkorrek euskal hezkuntza hobetzeko 10 giltzarriko proposamena egin zuen, eta, hainbat unibertsitateko aholkulariek eta zenbait adituk egindako ekarpenekin egokitu, aberastu eta doitu zuen.

Ikasturtearen hasieran iritzi publikoari zabaldu ostean, hezkuntza-eragileei eta administrazioei helarazi zien proposamena. Hala nahi izan duten guztiekin elkartu da Hik Hasi gaiaren inguruan hitz egiteko eta haien ekarpenak jasotzeko. Eta, dei egin dioten leku denetara joan da proposamena aurkeztera. Ikastetxe eta hezkuntza-zentro guztietara ere bidali da testua hezkuntza-komunitateko kideen ahalik eta parte-hartze zabalena lortzeko xedez.

Orain, proposamena aurkeztu eta sei hilabetera, jardunaldiak antolatu ditu euskal hezkuntzaren zoru etiko eta pedagogikoaz modu zaballean hitz egiteko. Jardunaldiok ez dira soilik eskolara begira antolatu, denontzako eskola eta denontzako herria jomuga hartuta baizik, alegia, herri hezitzailearen begirada luze-zabalaren pean. Horregatik, parte-hartzaileen artean izan dira eskola eta unibertsitateetako irakasleak, aisialdiko hezitzaileak, euskara elkartetako kideak, administrazioetako arduradunak, hainbat sindikatu eta alderditako ordezkariak, eta abar luzea.

“Euskal hezkuntzaren zoru etikoa eta pedagogikoa” jardunaldia Hik Hasik proposatutako euskal hezkuntza hobetzeko hamar gako horietatik abiatuta, hausnarketarako eta solasaldirako plaza izan da; norberaren esperientziak, nahiak eta desioak kontatzeko eta besteenak entzuteko espazioa; finean, iritzi, ideia eta ame-tsak partekatzeko gunea.

Duela bi mende sortutako egitura administratibo zentralistek eragin izugarria dute gure ohituretan, antolaketa ulertzeko moduan eta ikuspegian. Pentsamendu askeagoa izan nahi badugu, egunerokotasunetik distantzia hartu beharra dago. Gaurko hezkuntza nola hobetu litekeen gogoeta egiteko betaurreko berriak behar dira. Ondo funtzionatzea eragozten diguten inertziak gainditzeko ahalegin berezia gaude egin beharrean. Eta, hain juxtu, horretantxe saiatu zen Hik Hasi jardunaldian: bakoitza bere barnera begira jartzen, hobekuntzarako gakoak elkarrekin partekatzen, hezkuntzaren gainean begirada berri bat eraikitzen...

Partaideek iritzi-trukaketa librean jardun zuten apirilaren 21 hartan, gustura, giro ederrean aritu ziren ideologia mota ezberdinetako eragileak; sare bateko zein besteko irakasleak; psikologo eta pedagogo adituak nahiz egunero eskolan umeekin lanean aritzen diren hezitzaileak; eskola barruetako profesionalak eta herrietako elkartetako ordezkariak. Izan bedi pluraltasun eta dibertsitate hori euskal hezkuntza etikoago eta pedagogikoago bat eraikitzeko oinarri.

Zuzenketa

Hik Hasi aldizkariaren 227. zenbakiaren *Galdeidazu* atalean, HUHEZIKo irakasle Itziar Arregik sinaturiko *Zer da jolas libre eta zertarako balio du?* artikulua lehen paragrafoan, Gordon Burghardt ikerlariaren aipu bat azaltzen da, baina Hik Hasiren oker baten ondorioz, gaizki idatzia dago ikerlariaren abizena, Bugart agertzen baita.



HAUSNARKETA ABERATSA, 'EUSKAL HEZKUNTZAREN ZORU ETIKOA ETA PEDAGOGIKOA' JARDUNALDIAN

Hik Hasik antolatuta, *Euskal hezkuntzaren zoru etikoa eta pedagogikoa* jardunaldia egin zen apirilaren 21ean, Donostiako EHUren Barriola eraikinean. Hik Hasik aurkeztutako hezkuntza hobetzeko hamar gakoak bost bloketan banatuta izan ziren eztabaidarako abiapuntua. Ondoren, talde txikietan zein handietan bilduta, bertaratutako kideek hainbat ekarpen egin zituzten. Hizlariak nahiz partaideek egindako ekarpenak oparoak eta interesgarriak izan zirenez, hezkuntza-proposamena hobetzeko erabiltzeaz gain, jardunaldiak emandakoa *hik hasi* aldizkariaren bidez nahiz bestelako bitartekoak erabiliz gizarteratzeko asmoa du Hik Hasi egitasmo pedagogikoak.




**Mondragon
Unibertsitatea**
Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien
Fakultatea

HEZKUNTZA GRADUAK ONLINE

tutoretza saio eta
praktika presentzialekin

1 Haur Hezkuntzan eta
Lehen Hezkuntza
GRADUAK ONLINE

Gradu osoa online egiteko aukera.

2 Haur Hezkuntzan eta
Lehen Hezkuntzan
**BIGARREN GRADUA /
BIGARREN AIPAMENA**
hezkuntza gradu bat dutenentzat.

3 Diplomatura dutenentzat
**GRADURAKO
EGOKITZAPEN KURTSOAK.**

INFORMAZIO SAIOAK

ARETXABALETA

MAIATZAK 5, larunbata, 11.00etan

EKAINAK 14, osteguna, 18.00etan

www.mondragon.edu/profesionalak

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

ETEN EGIN DUTE IRAKASLEEN GREBA, JAURLARITZAK ZER PROPOSATUKO ZAIN



Mobilizazioak eten dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Irakasleen arloan aste osoko greba hastekoa zuten hilaren 23an, baina ELAK, LABek, eta Steilasek bertan behera utzi dute deialdia. Apirilaren 18an bilera egin zuten Eusko Jaurlaritzak eta sindikatuak, aurreko bileretan baino balorazio positiboagoak egin zituzten bi aldeek, baina ez zuten adostasunik lortu. Proposamen gehiago egin zituen gobernuak: besteak beste, ordezkapenetan eta baimenetan hobekuntzak egitea. Sindikatu gehienek urrats gisara ikusi dute, baina ez akordioa sinatzeko adina. Zehaztasunak falta direla nabarmendu dute LABek, Steilasek, CC00k eta UGTk, eta proposamen gehiago eskatu dituzte. Balorazio gogorragoa egin du ELAK eta “etsigarritzat” jo du bilera. Berriro protestan hasteko nahia agertu du. Ikusteke dago zer gertatuko den datozen asteetan.

NAHIKOA SINADURA LORTU DU “ESKOLA SEGREGAZIOAREN” KONTRAKO ZUBIAK ERAIKIZ EKIMENAREN LEGE EKINALDIAK

Eusko Legebiltzarrerara iritsiko da “eskola segregazioa” eragozteko herri ekinaldi legegilea: 10.000 sinadura bildu behar dituzte maiatzaren 31 baino lehen, eta kopuru hori gainditu dute dagoeneko. 11.500 bat herritarrek babestu dute proposamena oraingoz. Zubiak eraikiz plataformak bultzatu du lege ekinaldia, eta helburu nagusia da sare publikoaren eta itunpekoaren artean dagoen “desoreka” hausteak. Plataformako kideen esanetan, eskola publikoan nabarmen gehiago dira indize sozioekonomiko baxuko ikasleak, migratzaileen haurrak eta behar berezikoak, eta, hori aldatzeko, itunpekoen jarduna kontrolatzeko neurriak proposatuko dituzte, eta eskola batzuei baliabide gehiago jartzeko eskatuko dute.

NAFARROAKO ZENTRO GUZTIETAN EZARRIKO DUTE SKOLAE PROGRAMA

Skolae berdin bidean izeneko hezkidetza programak berdintasunarekiko konpromisoa adierazteko gai diren ikasleak lortzea du helburu. Iaz sortu zuen Nafarroako Gobernuak, eta 2016-2017ko ikasturtean hezkuntza maila guztietako hamasei ikastetxe publikok hartu zuten parte egitasmoan. Hiruzpalau urte barru, eskola publiko eta itunpeko guztietan txertatzea aurrekusi dute.

Maria Solana Nafarroako Hezkuntza kontseilaria pozik agertu da lortutako emaitzekin. Solanaren hitzetan, ikasleek “bizitza proiektu propioa hautatzeko, eraikitzeko eta bizitzeko gai izatea” da egitasmoaren helburua. Horretarako, planak ikasketa ibilbide bat proposatzen du, hezkuntza aro bakoitzeko helburuak zehazten dituen. Heldu den ikasturtean 50-100 ikastetxetan aplikatuko dute egitasmoa, eta haien erronka da hemendik hiru edo lau urtera ikastetxe guztietan egotea. Parte hartu duten zentroetako 700 irakaslek bost formakuntza modulu jaso dituzte. Horretarako, bederatzi pertsonako hezitzaile talde baten laguntza izan dute.

15 ziklo berri, Lanbide Heziketan

Datorren ikasturtean Nafarroako Hezkuntza Sailak 114 ziklo eskainiko ditu Lanbide Heziketan, aurtien baino 15 gehiago. Hazkunde nagusia goi mailako zikloetan izango da: % 9,4 handituko dute plaza kopurua. Euskarazko lau ziklo berri ere eskainiko dituzte datorren ikasturtean.



'GURE JOLASTOKIA AMESTEN' SAIOA EGINGO DA MAIATZAREN 19AN GASTEIZEN

Gasteizko Errekabarri ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta, jolastokien ereduaren gainean hausnartzeko jardunaldia egingo da maiatzaren 19an, Gasteizko Salburuako Gizarte Etxean, goizeko 9etan hasita. Hiru hitzaldi egingo dira eta ondoren eztabaidarako tartea izango da. Lehenik Heike Freire heziketa berdean aditua mintzatuko da, "Jolastoki biziak, natura eskoletara sartzeko aukera bat" izenburupean. Ondoren, Dunak Taldeko Amaia Albeniz eta Zuriñe Burgoa arkitekto feministek hartuko dute hitza "Eskolako patioa, berdintasunean hazi eta hezi" mintzaldia eskaintzeko. Eta, azkenik, Carme Cols eta Pitu Fernandez El Nou Safareig-eko arduradunak ariko dira, "Jolastoki berria diseinatzeko prozesua, komunitatea sortzeko giltzarri" izeneko saioarekin.



'NEUROHEZIKETA FISIKOA' IKASTAROA EGINGO DA MAIATZAREN 11N ETA 12AN MU-REN ARETXABALETAKO ZENTROAN

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Athlon-ek antolatuta, "Neuroheziketa Fisikoa: oinarritua eta bizipenetan kokatua" izeneko ikastaroa egingo da maiatzaren 11n eta 12an MU-ren Aretxabaletako campusean.


Irene Pellicer Gorputz Hezkuntzako irakasleak eta Hezkuntza Fisiko emozionalean nahiz Neuroheziketa Fisikoan adituak emango du saioa. Bereziki, Heziketa Fisikoko irakasleei eta neurozientziaren ekarpenetan interesa duten ekintza motorren esparruko pertsoneri dago zuzendua ikastaroa. Ostiraleko saioa (maiatzak 11) 15:00etatik 20:00etara egingo da; eta larunbatekoa (maiatzak 12) 09:00etatik 14:00etara.

Informazio gehiagorako eta matrikula egiteko www.mondragon.edu webgurena jo daiteke.

USURBILGO UDARREGI IKASTOLAK 12 KANTUZ OSATUTAKO CD-A KALERATU DU

50 urte bete dituela ospatzeko, 12 kantuz osatutako disko bat kaleratu du Usurbilgo Udarregi Ikastolak. Kantu sorta honetan, Imanol Urbietak aspaldi sortuak zituen eta ezagunak ez diren kantuak azaltzen dira, baita txirularekin jotzeko kantak edota ikasleek eurek sortuak ere.

Haur Hezkuntzakoekin, Lehen Hezkuntzakoekin zein DBHkoekin abesteko eta gozatzeko kantak dira, entzun eta ikas errazak. Kantuen moldaketak Jaione Eskuderok egin ditu, ikastolako musika irakasleak. Instrumentu joleak berriz, gurasoak, irakasleak, ikasleak eta ikasle ohiak izan dira. Abesten, ikastolako komunitate osoak hartu du parte: irakasle, irakasle ohi, langile, ikasle, ikasle ohi, guraso, guraso ohi, aiton-amona... Grabaketa ere Udarregiko guraso ohi Kaki Arkarazok eta ikasle ohi Martxel Arkarazok egin dute, Garate Studioetakoekin.



HIZPIDE IZANGO DA

HIK HASI-REN UDAKO TOPAKETETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA



Ekainaren 26an eta 27an Leioan eta uztailaren 2an, 3an eta 4an Donostian egingo dira Hik Hasi-ren Udako Topaketak, urteroko legez, irakasleei, hezitzaileei, gurasoei nahiz heziketaren arloko profesionaleri zuzenduta. Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira: pedagogia sistemikoa; mugak eta autoestimua; mindfultyoga; askatasunerako pedagogia; psikoterapia eta gorputza hezkuntzan; suizidioaren prebentzioa; antzerkia eta gatazken kudeaketa; matematika manipulagarria; komunikazio ez bortitza; ikasleak euskarara erakartzeko bideak; dislexia; hezkuntza eredu parekidea; barne sormena lantzeko estrategiak; irakurketa eta idazketa konstruktibista; jolas terapeutikoa eskolan; adimen emozionala; etab. Matrikula egiteko epea zabalik dago jada, eta www.hikhasi.eus webgunean egin daiteke. Informazio gehiagorako ere webgunea kontsulta daiteke edota bestela hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatzi.

HEZKUNTZAREN ETA GENEROAREN GAINEKO HITZALDIA EMANGO DU AMELIA BARQUINEK MAIATZAREN 9AN BILBON

Hik Hasik antolatuta, "Hezitzaileok eta generoa. Nola jokatzeko dugun gure ikasleekin?" izeneko hitzaldia eskainiko du Amelia Barquinek maiatzaren 9an Bilboko Harrobia ikastolan, 18:00etatik 20:00etara. Saioa doakoa da, baina parte hartzeko izena eman behar da www.hikhasi.eus helbidean. Informazio gehiago nahi izanez gero, hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatz daiteke.

BIZIPOZAREN ELKARTEAK KOMUNIKABIDEekin ELKARLANEAN JARDUNGO DIRA MAIATZAREN 26AN

"Bizipozaren elkarteak eta komunikabideak elkarlanean" izenburupean jardunaldia egingo da maiatzaren 26an Oronak Hernanin duen zentroan, 9etatik 13:30era. Besteak beste, Amagoia Mujika eta Xabier Madariaga kazetariek, Gotzon Barandiaran idazleak, Estibalitz Esteibar Bertsozale Elkarte-kideak, Arkaitz Sukuntza sare sozialetako adituak edota Beatriz Sever Chrysallis-eko eta Bizipozako kideek hartuko dute hitza jardunaldian. Saioa doakoa izango da, baina bertan parte hartzeko izena eman behar da www.bizipoza.eus webgunean.

'TXIKIPEDIA' AURKEZTU DUTE, HAURRENTZAKO WIKIPEDIA

Vikidia, gazteentzako sortutako Wikipegia osatu eta *Txikipedia* aurkeztu dute orain, Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen ekimenez. Vikidian zegoen material guztia jaso eta Wikipedian proiektu berri gisa txertatu dute. Euskarazko Wikipedia da lehena horrelako ekimen bat martxan jartzen. *Txikipedia* osatzen ere, Wikipediarekin gertatzen den bezelaxe, edonork har dezake parte.



Hezkuntza eta osasuna. Horiexek dira Kubako Gobernuaren zutabe nagusiak. 1959ko iraultza komunistaren ondoren, lehen egitekoetako bat herritarrak alfabetatzea izan zen. 1961ean alfabetatze kanpaina garrantzitsua egin zuten hiri handietatik hasi eta mendialdeko herrixka txikietaraino. Analfabetismoa desagertzea lortu zuten. Irakurtzen eta idazten jakiteak jakituria dakar, ezagutza, kultura. Eta horrelako herritarrak nahi zituzten. Horregatik, hezkuntza- eta osasun-zerbitzu guztiak doakoak dira. Denentzat. Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitate ikasketak amaitu arte ez dute ez matrikularik ez testu-libururik ordaindu beharrik. Herritarrak horren jakitun dira, eta harro defendatzen dute sistema. Horren guztiaren berri jaso zuten apirilean Hik Hasik antolatuta Habanara egindako bidaia pedagogikoan, Euskal Herriko 60 hezitzailek.

GAIA:

KUBAN IKASIAK

Esaldi potoloak ahoan,
gertuko harremana gorputzean eta
ongi kokatutako historia buruan

Barne Produktu Gordinaren % 12 inbertitzen dute hezkuntzan (Hego Euskal Herrian ez da % 4ra iristen). UNESCOk dio ratio onenetakoak dituen herrialdea dela. Erakunde beraren nazioarteko saria jaso zuen bertako *Haurrak hezten* programak, duen oinarri zientifikoagatik eta eragin sozialagatik. Ekonomikoki herrialde azpigaratuen artean kokatzen den arren, Hego eta Ertamerikako herrialdeen artean erreferentia da Kubako hezkuntza-sistema. Eta munduko gainerako herrialdeei erakusteko moduko ezaugarriak ere baditu.

Jose Martí irakasle handiaren ideiak bizirik daude, sinesten dute hark esandakoan: “*Pertsona heztea bizitzarako prestatzea da*”. Sinestu eta bizi, eguneroko praktikan behin eta berriro agertzen den ideia baita. Mi alegre pelota haur eskolako zuzendariak garbi dio: “Guretzat irakaslea da dagoen pertsonarik garrantzitsua. Medikua oso garrantzi-tsua da, ingeniaria ere bai, igeltseroa ere bai... baina horiek denek ez lukete ikasketarik edukiko irakasle baten eskuetatik pasa izan ez balira. Beraz, irakaslea da figurarik garrantzitsua, eta hortaz, maitatuena izan behar du, zainduena, komunitatearen eta familiaren maitasuna gehien sentitu behar duena. Irakaslerik gabe ez dago preskuntzarik”. Manuel Bisbé Alborni Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko zuzendariak ere argi du berari hezkuntzak eman diola dagoen lekuan egoteko aukera: “Nire gurasoak

analfabetoak ziren eta bi ahizpok karrerarik humanoenak ikasi genituen: hark medikuntza eta nik irakasletza. Niri iraultzak eman dit naizena izateko aukera”. Daukaten hezkuntza-sistema eta iraultza lotzen ditu, eta hori gazteei azaltzea garrantzitsutzat du: “Iraultza bizi gabeko gazteak dauzkagu, eta garrantzitsua da horiei historia kontatzea. Irakasleoi dagokigu lan hori; ikasleak ez aldentzea historiatik. Eta horretarako, Kubako estatuak duen orientatzaile politiko nagusia irakasleak dira. Hor daukagu erronka: asko hitz egin behar diegu ikasleei euren herrialdeko historia eta munduan gertatzen dena ezagutu dezaten”.

Hezkuntzari ematen dioten garrantzia, ordea, ez dator bat irakasleek jasotzen duten soldatarekin. Irakasleen soldata igotzeko eskaera sozial handia dago, eztabaida soziala da gaur egun, eta horri irtenbidea ematea dute erronka.

Familia bidelagun etapa guztietan

“Familiarik gabe ezin du egon eskolak. Zer egingo dugu guk familiarik gabe?”, gaineratzen du aipatu ikastetxeko zuzendariak. Familia eta eskolaren arteko erlazioa oso estua da Kuban, asko zaintzen da haur eskoletatik hasi eta goiko mailetako zentroetan ere. Denetan. Mi alegre pelota haur eskolako zuzendariak dio familiek konfiantza dutela euren umeei irakasten ari diren hezitzaileengan: “Irakasten ari den heziketaren eta irakaskuntzaren eredu

GAIA: KUBAN IKASIAK

Esaldi potoloak ahoan, gertuko harremana gorputzean eta ongi kokatutako historia buruan

izanez irabazten du irakasleak familiaren eta komunitatearen prestigioa eta maitasuna. Konfiantzarik ez balute, ez lituzkete eskolan utziko. Eta ez da horrelakorik gertatzen. Ikasi egingo duten konfiantzarekin uzten dituzte eskolan. Umeek zer egin duten kontatzen dietenean, familia-kideei eskolarekiko eta irakaslearekiko maitasuna sortzen zaie. Beraiek ekarritako kartoi zaharrak zertan erabiltzen diren ikustean, kartoi hori aulki, arrautza edo mahai bihurtu dela ikustean, baliorik gabeko zerbait ekarri eta euren haurren lanketarako zerbait garrantzitsua bihurtu dela ikustean, maitasuna sortzen da”.

Maitasuna eta inplikazioa eta parte-hartzea. Horretarako bideak zehaztuta dituzte. Haur eskoletan eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan argibide-taula bana dute gela bakoitzean. Bertan ordutegia, elkarrekin egiteko ekintza eta mezu hezitzailea agertzen dira. Horrez gain, hileroko biltzen dira mailaka gurasorekin eta hizpide izaten dituzte umeen garapenari lotutako gaiak. Haur eskola bakoitzean osasunaz arduratzen den erizain bat dago.

Are gehiago, gurasoek eta hezitzaileek elkarlanean umeentzako materiala sortzen dute, batik bat paperarekin. Umeek argudio desberdinak garatu eta landu ditzaten sortzen dituzte materialak eta txokoak: sukaldea, logela, egongela, komuna, denda, ospitalea, ilepaindegia... Leku errealak dira eta umeek helduak imitatzen dituzte txoko horietan. “Gure eskolako ekintza nagusiak jolasa eta ekintza independenteak dira. Dena imitazioz ikasten dute eta horretarako baliabideak eskaintzen dizkiegu”.

Haur eskolak lanean dauden amen umeentzako dira Kuban. Umea izan eta urtebeteko amatasun baimena dute eta beraz, urtebeterekin eramaten dituzte haur eskoletara, lanean itzulitakoan. Amek etxetik kanpo lanik egiten ez badute, beste aukera bat dute: *Haurrak hezten* programa. Astean behin edo bitan auzoko parkera joaten dira auzoko amak, aitak, amonak, aitonak... 2-6 urte bitarteko umearekin. Bertan programa horretako pare bat hezitzailearen gidaritzapean jarduera batzuk egiten dituzte eta astean zehar etxean egiteko zereginak ere gomendatzen dizkiete. Elkartrukeak asko laguntzen die gurasoei. Ume bakoitzaren garapenaz, lorpenez zein zailtasunez hitz egiten dute. Auzoko erizainak, medikuak, programaren koordinatzaileak eta lekuko presidenteak ere parte hartzen dute eta jarraipena egiten diete, alegia, komunitatea osoa inplikatzeko da.

Gaur egun Kubako adin horretako umeen % 97ak hezkuntza zerbitzu bi horietan parte hartzen du: haur eskoletara % 20 joaten da eta *Haurrak hezten* programara gainerako % 77. Bien helburua haurrak eskolatzeko garairako prestatzea da. Bide horretan laguntzeko ume bakoitzaren txosten pedagogikoa ematen diete Lehen Hezkuntzako irakasleei.

Lehen Hezkuntzako Jose Luis Tasende ikastetxeko zuzendariak ere familiarekiko komunikazioaren garrantzia azpimarratzen du: “Denok elkarrekin kateatuta gaude, askatu gabe, eta horrek funtzionarazten du eskola. Horrek egiten du haur bat zoriontsu ikustea”. Eta nerabeekin lan egiterakoan ere familiaren laguntza eta parte-hartzea funtsezkoak direla gehitzen du Bigarren Hezkuntzako



GAIA: KUBAKO HEZKUNTZA-SISTEMA

Manuel Bisbé Alberni ikastetxeko zuzendariak. “Familiako heziketaren eskola”n biltzen dira hilero eta gurasoek zein hezitzaileek iradokitako gaiak nerabeekin nola bideratu eztabaidatu eta lantzen dute.

Horrez gain, gela bakoitzean guraso ordezkari bat dago. Horien guztien arteko bat hautatzen dute eskolako kontseiluan parte hartzeko. Hilean behin biltzen dira eta ekin-tza metodologikoa eta eskolatik eta curriculumetik kanpoko ekintzak planifikatzen dituzte. “Badugu gurasoek parte hartzeko beste modu bat ere”, gehitzen du zuzendariak. “Ikasgai batzuetan bukaerako lan bat egin behar izaten dute, eta informazioa bilatzeko liburutegi batera, museo batera, leku zehatz batera... joan behar izaten dute. Kasu horretan, guraso batek laguntzen die, hark hartzen du talde horren ardura”.

Helburua, bizitarako prestatzea

“Hezkuntza zuhaitz bat bezalakoa da, hazi bat ereiten da eta adar askotan zabaltzen da”. Haur eskoletako txokoek etxeen eta gertuko ingurunearen antza dute: sukaldea, logela, denda, ospitala... eta horietan garatzen diren lanbideak ezagutzen dituzte, bidenabar. “Horrela ohitu egiten dira egoera eta toki horiekin, eta etorkizunean aukeratzen duten lanbidea haur eskolatik egiten zaie ezagun”, diote haur eskolako arduradunek.

Etorkizunerako prestatze hori buruan dute. Baita eskola berezietan ere. Behar bereziak dituzten ikasleentzat eskola bereziak dituzte Kuban: gorrentzat, autistentzat, hizkuntza gabekia sakona dutenentzat, itsuentzat, komunikazio zailtasunak dituztenentzat, portaera arazoak dituztenentzat... “Trantsizioko eskola da gurea” dio, adibidez, Habanako René Vilches gorren eskolako psikopedagogoak. “Umeak hemen egoten dira, baina une konkretu batean eskola arruntera pasatzen dira, hara joateko baldintza guztiak betetzen dituztenean, betiere familiak nahi baldin badute”. Euren zeregina haur horiek heztea eta irakastea da, etorkizunerako prestatzea, lan mundurako, beren interes pertsonaletarako. Azken batean, gizartean integratzea.

“Hainbeste gauza erabilgarri daude ikasteko, ez zaiola haurrari alferrikako hitzik edo daturik irakatsi behar. Alfabetoaren eskolak, esajeratu gabe, ekintzen eskolekin ordezkatu behar dira”. Lehen Hezkuntzako eta goragoko mailetako eskoletako hormetan Kubako historiako pasarteak irakur daitezke. Che Guevara, Fidel Castro eta Jose Martíren argazkiak ikusi ere bai. Herrialdearen historia presente dago. Jose Luis Tasende Lehen Hezkuntzako ikastetxeko liburutegiko arduradunak dio ikasgelak funtzio bat betetzen duela eta liburutegiek beste bat: jakintza esparrua edo



kultura handitzea. Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitate-aurrekoan (hemen Batxilergoa deritzona) “Eztabaida eta hausnarketa” izeneko denbora tarte bat dute astero. Hilean behin gai politiko bat lantzen da eta gainerako saioretan gai nazionalak, nazioartekoak... munduko gaiak. Hitz egin, ezagutu, eztabaidatu eta kultura maila igo. Unibertsitate-aurreko ikastetxeetan ikasleak unibertsitatara sartzeko probarako prestatzen dituzte. Hiru urteko ikasketak dira eta lehendabizi kultura orokorra eta balioak lantzen dituzte; gero datoz arlo teknikoak.

“Irakastea haztea da”. Kuban, bizitza osorako hezkuntza eskaintza dute: unibertsitate-aurrekoa, tekniko-profesionala eta lanbideak, eskola pedagogikoak eta goi mailako hainbat modalitate, unibertsitate ikasketak, lanean daudentzako ikasketak lantokietan bertan... Nahi duten arloan ikas dezakete, eta doan. Dena da doakoa eta denentzat: mendialdeko herrixketan badaude 2, 3 edo 4 ikasleko eskolak. Unibertsitatean 5 urteko aurreikuspena egiten da zein titulazio eta zenbat plaza eskaini erabakitzeke. Adibidez, 2018ean kalkulatu dute 2023an zenbat abokatu beharko dituzten. 100 abokatu behar badituzte, 100 plaza eskainiko dituzte. Behin karrera amaitutakoan, hiru urtez zerbitzu sozialetan egiten dute lan. Bukatutakoan, lan horretan gelditzeke aukera dute.

“Hezkuntza bizitzarekin hasten da, eta heriotzarekin baino ez da bukatzen”. Horrek irakasleentzat ere balio du. Eskolan bertan beraien artean, mailaka, mintegika, probintziako formazioetan... prestakuntza antolatuta eta zehaztuta dago. Irakasleak ebaluatu egiten dira, ikasleen hobebeharez.

GAIA: KUBAN IKASIAK

Esaldi potoloak ahoan, gertuko harremana gorputzean eta ongi kokatutako historia buruan

Guretik ikusiz

Bidaide izan garen 60 hezitzaileon artean gure ikuspegiak eta iritziak partekatu ditugu, betiere ikuspegi pedagogikotik. Ikusi dugunaren arabera, zer gustatu zaigun, zer ez, zer hobetu daitekeen eta guretzat zer izan daitekeen baliagarria aipatu dugu.

Hezkuntza

- Hezkuntzarekiko adierazten duten konpromisoa eta jarraera eredugarriak dira. Eskola bigarren etxea da. Hezitzaileei eta familiari balio moral eta psikologiko itzela ematen diete. Irakasleek ikasleekiko espektatiba altuak dituzte, eta, hain justu, hori da hezkuntza praktika arrakastatsuetako bat. Ikasleei “ahal dutela” mezua helarazten zaie behin eta berriro (garbi ikusi zen gor eta hipoakusikoen eskolan, baina baita eskola arruntetan ere). Zailtasunen aurrean banakako orientazioa erabiltzen dute. Haur eta gazteekiko begirada azpimarratuko genuke: pertsona kapazak dira eta euren eskuetan dago gizarte osoaren etorkizuna. Guk nola errekuperatu balio eta konfiantza hori?

- Hezkuntza afera politikoa da Kuban. Gurean tabu bihurtu da politikaz hitz egitea. Horren inguruan gogoeta egin beharko genuke. Edonola ere, nahiz eta aitortu ez, politikoki erabiltzen da hezkuntza gurean ere (Nafarroan ingelesaren erabilerarekin, adibidez).

- Hezkuntza funtsezko zutabea da Kuban, baina irakasleek oinarrizko soldata dute (20 euro inguru). Hori juxtukoa denez bizitzeko, diru gehiago (beltza) atera dezaketean lanbideetara jotzen dute batzuek. Kontraesan edo arazo hori dute. Jende berriaren faltan, jubilatua ari dira bueltatzen irakaskuntzara. Ekonomia bikoitzak, besteak beste, arriskuan jar dezake estatu eredia. Iraultza “paternaliste-



gia” izan dela aipatu zuen baten batek eta horrek ekarri du ez baloratzea dagoena, baizik eta faltan izatea ez dagoena.

- Sistema produktiboan dute arazoa: produkzioa garatzea dute erronka, denek lana izan dezaten. Baliabideak etekin atera gabe joaten zaizkie. Ez da herrialde azpigaratua, baliabiderik gabeko herrialdea baizik.

- Gustatu zaigu ongizateari ematen dioten garrantzia: hezitzaileak ondo, gustura, pozik egotea. Hezitzaileak gustura baldin badaude, haurrak ere gustura egongo dira. Era berean, ikaslearen eta familiaren ongizateari ere ematen diete garrantzia.

- Eskoletako zuzendariak oso ondo aurkezten zituzten lankideak, elkarrekiko miresmenez. Kultura handia erakusten zuten eta ez soilik Kubako aferei buruz, baita mundu zabaleko gatazka edota egoera ekonomiko-politikoei buruz ere. Mundura begira daude; inolaz ere ez isolatuak. Oro har, hizlari onak dira, ongi helarazten dituzte ideiak eta nabari da argumentatzen ohituta daudela. Zuzendariak ez ezik irakasleak ere oso ongi mintzatzen dira.

- Elkarlana. Irakasleek elkarrekin egiten dute lan. Presakuntza partekatua dute.

- Konpetentziak ez dira aipatu ere egiten. Baina argi dute euren helburua herritarrak eraikitzea dela.

- Baliabide asko bideratzen dituzte hezkuntzara. Haur Hezkuntzan ratio onak dituzte. Hezitzaile asko daude eta haurrak kasu eginda eta zainduak ikusten dira. DBHn ikasle talde bakoitzak bere irakasle-gida du. Haur Hezkuntzako orduetgia eta egutegia lan egiten duten gurasoei begira daude eginak.

- Deigarria izan daiteke haur eskoletan (0-6) eskolatzeko aukera soilik lanean ari diren emakumeen seme-alabek izatea. Gurean, emakume langabetuen eta hainbat etorkinaren seme-alabak eskolatik kanpo geratuko lirakeke (galde gabe eszedentzia egoeran daudenak, lanaldi murriztua dutenak, bat-batean lan bat izateko aukera dutenak, berriro haurdun geratu direnak, etxetik irten ezinik daudenak... zein egoeratan egongo lirakekeen). Eredu honek hausnarketa sakona beharko luke. Azken finean, beti gertatzen den bezala, umeen zaintzaren ardura emakumeengan jartzen da.

GAIA: KUBAKO HEZKUNTZA-SISTEMA

Familia

- Familiekin harreman estua dute, baita Bigarren Hezkuntzan ere.

- Familiaren inplikazioa handia da. Bisitatu ditugun eskola guztietan aipatu dute familia. Familiaren laguntza ezinbestekoa dela diote eta bere parte-hartzea arautua dute. Bi aldean arteko joan-etorria etengabekoa da. Eskoletan familiei zuzendutako argibide-etaulak dituzte. Taularen edukia aldatuz joaten dira. Hilean behin biltzen dira familiekin eta eguneroko jarraipena egiten dute lan orduetatik at. Hemen, oro har, gurasoei gauza puntaletan soilik uzten zaie parte hartzen. Gehiago gerturatzea falta zaigu eta egiten duten lana eta betetzen duten ezinbesteko funtzioa errespetuz aitortzea. Familiak eta ikasleak epaitzeko joera handiegia daukagu; eta askotan familiei ez dagozkien funtzioak helarazten dizkiegu (etxerako lanen inguruan, adibidez).

- Gurean gurasoak eskolaz kanpoko jardueraz arduratzen dira eta hezitzaileak arlo pedagogikoaz. Hori zuzendu beharko genuke, gurasoak arlo pedagogikora ere ekarriz.

Hezkuntza eta osasuna

- Osasuna oso presente daukaten gaia da.

- Familia eta gizarte zerbitzu guztiak elkarrekin harremanetan daude. Antolatuta daude eta komunikazioa eta jarraipena dute. Horrek batasuna ematen du.

- Emakume bat haurdun gelditzen den unetik, medikuak jarraipena egiten dio eta *Haurrak hezten* programan parte hartzeko aukera du. Umea jaiotakoan pediatrak eta erizainak egiten diote jarraipena. Eta ondoren hezitzaileak eta haur eskolako erizainak.

- Haur eskola bakoitzean erizain bat dago lanean. Oso presente dago. Prebentzio lan izugarria egiten du: elikadura zaintzen du, komunak garbi egon daitezen ziurtatzen



du, zuhaitzen adarrak mozten ditu erortzeko arriskuan baldin badaude, zorriak begiratzen dizkie egunero haurrei, muki zuriak baldin badituzte haur eskolan geldi daitezke eta muki berdeak baldin badituzte etxera bidaltzen dituzte, gaixo daudenak etxera bidaltzen dituzte... Jarraipena erabatekoa da.

- Lehen Hezkuntzako eskoletan ez dago bertan erizainik, baina egunero joaten da jarraipena egitera.

Metodologia, didaktika

- Hezitzaileak haurrengandik gertu daude, "gu ere guraso gara" diote.

- Bitarteko gutxi dituzten arren, irudimen handia dute. Haur eskoletako materiala beraiek egiten dute: gurasoek, hezitzaileek eta ikasleek.

- Eduki asko buruz ikasten dituzte. Biderketa taulaz gain, literatura (poesia, kantak, ipuinak...). Gure kasuan ere, euskal curriculumeko hainbat eduki buruz ikastea ondo etorriko litzateke. Baina betiere modua zainduz; alegia, jolasen bidez eta sormena landuz ikasiz, eta ez buruz automatikoki.

- Haurren parte-hartzea eta komunikazioa oso ondo lantzen dute. Diziplina dute, baina konfiantza ere bai. Bat-bateko-tasuna ikusten zaie.

- Hezkidetzak guk gehiago lantzen dugu. Haiek ere lantzen dute eta oso presente dute gaia; baina ondorioak, oraindik ere, ikusteke daude. Gure eta haien abiapuntua desberdina da; kulturalki gizarte tradizionalagoa da gurea baino, baina ez zaigu ahaztu behar iraultzak 60 urte eskas dauzkala, aurretik erabateko zapalkuntza zegoela eta soilik 100 urte pasa direla esklabutza debekatu zenetik...

GAIA: KUBAN IKASIAK

Esaldi potoloak ahoan, gertuko harremana gorputzean eta ongi kokatutako historia buruan



- Hizkuntza gorputzera ekartzen dute. Gorputzaren lanketa oso garatua daukate.

- DBHn eta Batxilergoan aukerazko ikasgaiak ez dute. Denek berdin. Estatuaren sistema da hori: hezkuntza berdina eta denentzat. Gure ikuspegitik, aukera falta negatibo ikusten dugu. Aldiz, gorputz espresioari, mugimenduari, arteari... garrantzia emanez askotariko adimenak garatzeko aukera gehiago dute. Gurean ikasgaiak aukeratu ditzakete, baina denak modu beretsuan erakusten dira. Ez dugu uste horrek aukera gehiago ematen dienik ikasleei.

- Eskola porrotaren gaia ez dute guk bezala ikusten. Ikasleek azaltzen dituzten zailtasunak gainditzeko banakako jarraipena egiten zaie, nahiko modu holistikoa.

- Gehienek badakite 14-16 urterekin zer ikasi nahi duten. Denentzat dena berdina den eskola tradizionaletan hori garbi izatea zaila da. Nola lortzen dute, orduan? Askok familiaren tradizioari jarraitzen diote: gurasoen lanbidea hartzen dute eurek ere.

Heziketa berezia-inklusioa

- Behar bereziak dituzten haurrak (gorrak, autistak...) aparteko eskola berezietan daude. Eta gero, ahal dutenean eta prest daudenean, eskola arruntetara bideratzen dituzte. Eskola berezietan arreta pertsonalizatua dute eta eskola arruntetara joaten direnean jarraipena egiten diete. Eskola arruntetan baliabideak egonik, beste ikasleekin batera aurrera egiten dute. Ikusi genituen gehienek intelektualki arazorik ez zuten, gai ziren mailari zegokion curriculum jarraitzeko. Helburua da eskola arruntetara pasatzea eta hura bukatzean lan bat aurkitzea. Zer da egokiagoa eskola berezietan egotea ala hasieratik eskola arruntetan egotea? Zalantza eta galdera asko sortzen dira gai honen inguruan:

- Nola egokitzen dira eskola arruntera trantsizioa egiten dutenak?

- Eta trantsiziorik egiten ez dutenak? Ez al dira erlazionatzen gainerako umeekin? Gizartetik at al daude?
- Ez dakigu zer-nolako irakaskuntza jasotzen duten ezgaitasun intelektuala dutenek, Down sindromea dutenek, gaixotasun arraroak dituztenek, garun paralisia eta abar... Ziur hauek eskola arruntetik at daudela... Nola gizarteratu? Besteek nola ikasiko dute eurekin erlazionatzen?
- Gurean eskola arruntetan daude, baina jarraipen eta laguntza nahikoa al dute?
- Gurean integratzeko aurrerapenak egiten ari gara: fisioterapeutak ditugu, logopedak, hainbat elkarreneren laguntza (Aransgi...)
- Behar bereziko haurren inklusioa da denon helburua, baina zein da abiapuntu egokiena? Gela barruan gainerrako haurrekin egotea ala aparteko trataera eta laguntza berezia ematea?
- Euskal Herrian gaur egun ezin dugu pentsatu umea gorra izateagatik eskola berezi batean eskolatzea. Beharbada eskoletan ditugun baliabideetan jar dezakegu eztabaida. Baina segregazio eredu ume gorrentzako aukera bezala ez dugu ikusten hemen.
- Inklusioa helburu bada, abiapunturik egokiena ezin da bazterketa edo segregazioa izan, ezta?

- Portaera arazoak dituzten haurrentzat hiru eskola daude Habanan. Helburua ikasle horiek lanbide baterako prestaketa eta gizarteratzea da.

- Hiperaktibitate kasuen inguruan, nabari da arazo hori guk izaten dugun bezala ez dutela bizitzen. Horrek hausnarke-ta bat dakargu: gure hezkuntza-sisteman benetan al dago hainbeste arreta falta eta hiperaktibitate kasu? Ala berehala diagnostikatzeko joera dugu eta arazoa ez da ikasleena baizik eta sistemarena, haurren mugimendua eta erritmoa onartzen eta errespetatzen ez direlako? Prest al gaude banakako erritmora egokitze curriculumak dioten bezala?

GAIA: KUBAKO HEZKUNTZA SISTEMA

Atzerriko hizkuntza

- Atzerriko hizkuntzarekin edo bigarren hizkuntzarekin LHko 3. mailan hasten dira. Lehenengo ama hizkuntza ongi lantzeari ematen diote garrantzia. Gu oso goiz hasten gara 2. hizkuntzarekin. Euskarari gehiago eskaini beharko genioke, eta batez ere ahozkotasanari.

- Komunikazioari garrantzi handia ematen diote. Lehenengo hitzaldian hizlariak mikrofonorik gabe zuzenean hitz egin nahi izan zuen, zalantzak zituen mikrofonoarekin jendearengana iritsiko ote zen.

Sorterria, historia

- Sorterriari leku egiten diote. Euren historia ikasten dute. Guk, aldiz, nahiko utzita dugu. Ez dugu lantzen ez nondik gatozen ez nora goazen.

- Agian euren lantzeko modua ez da egokiena, beste modu batera lantzeko aukera edukiko genuke; baina landu beharko litzateke.

- Hezkuntza euren historia eta balioak transmititzeko tresnatzat dute. Gu, ordea, beldurtuta eta konplexuz beterik gaude. Guk euskaratik eta euskal kulturatik transmititu ditzakegu gure balioak: gu zer garen eta nola ikusi nahi dugun mundua. Beraiek hori lantzen dute, eta guk konplexuak ditugu hori lantzeko.

- Burujabetza, bakea eta bizikidetzak dituzte.

Antolaketa ereduak

- Herritarren parte-hartzea: bai gure sistema kapitalistan bai kubatarren sistema komunistan, herriari ezarrita eman zaio ereduak, herritarrak ez dira protagonista izan. Eta ondorioz, herritarrok kontzientzia gutxi dugu. Deszentralizazio ekonomikoa eta politikoa behar da herritarren parte-hartzea indartzeko.

- Sistema zentralizatua da eta hori negatiboa iruditzen zaigu.

- Kuban irakasle ikasketak egiten ari direnek etxetik gertu duten eskolan egiten dituzte praktikak, eta ikasketak amaitutakoan eskola berean hasten dira lanean.

- Gure kasuan eta egoeran, denok nahi ditugu hezkuntza proiektuak sendotu, irakasleen mugikortasuna gutxitu... Daukagun sistemak erabat baldintzatzen du gure jarduna. Lagundu beharrean zaildu egiten du. Irakasleen egonkortasunik eza da gure sistemaren hutsuneetako bat.





“Eskola bat ez bada ahalduntzailea eta transformatzailea, zerbait ez da ondo egiten ari, eta aldatu egin behar du”

ELKARRIZKETA:

EDUARD

VALLORY

KATALUNIAKO ESCOLA NOVA 21 PROGRAMAREN ZUZENDARIA

Praktika pedagogikoen berrikuntzan eta hobekuntzan aditu bihurtu da Vallory azken urteetan. Hezkuntza arloan kultura aldaketa sustatzeko xedez eta datozen belaunaldiak bizitzarako eta elkarbizitzarako prestatzea jomuga izanik, Escola Nova 21 programa sortu zuen duela bi urte. Dagoeneko ia 500 ikastetxe atxikitu dira egitasmora, euren zentroetan hobekuntza-prozesuak martxan jartzea helburu hartuta. Programak baditu bi

elementu nagusi hezkuntza eragileak mugiarazi dituen. Horietako bat abiadura da, “azkartasunak erabakiak hartzera behartzen zaituelako, atzera edo aurrera egitera”; eta beste elementua objektibotasuna da: “Gure artean badirudi irakasle bakoitzak nahi duen eran jardun dezakeela, eta hezkuntza-praktika oro dela erlatiboa. Ezin dugu horrela jarraitu. Serioak izan behar dugu eta probatuta dagoen horretan oinarritu gure jarduna”.



Zer da Escola Nova 21 programa? Eta zein da bere egitekoa?

Programa zer den azaltzen hasi aurretik uste dut Escola Nova 21 zein testuingurutan sortzen den esplikatzea garrantzitsua dela. Oinarritzko hiru elementu izan behar dira kontuan.

Lehenik eta behin, ez dugu ahaztu behar orain dela mende bat pasatxo, hezkuntzaren unibertsalizazioaren gaineko eztabaida gertatu zela. Gero eta industrializatuagoa zen ingurune batean, jende multzo handiari oinarritzko heziketa ematea zen xedea. Eta planteamendu hark oinarrian hainbat premisa zituen: 'Adin bereko haurrak berdinak dira, gaitasun berberak dituzte, ez daukate ezagutzarik eta kanpotik irakatsi behar zaie... zenbat eta nagusiagoa izan haurra, orduan eta gaitasun handiagoa du edukiak barneratzeke... ezagutza bat zenbat eta intelektualagoa izan, orduan eta esanguratsuagoa izango da...', etab. Planteamendu hark oraindik ere indarrean darrai. Ikuspegi akademizista batez ari gara hizketan. Eskolaren oinarrian dagoen ideia da jakintza bat badagoela transmititu

beharrekoa, alegia, erabat osatuta dauden ezagutza batzuk daudela eta irakaslearen egitekoa dela ikasleari horiek helaraztea, liburuen bidez, memorizazioaren bidez, jarduera mekanikoen bidez... Eredu horrek eskola erabat selektiboa eraiki du, eta balio duten ikasleak eta balio ez dutenak bereizi ditu.

Eta zer-nolako ondorioa du horrek?

Haur guztiak berdin ikasten dutela uste bada, pentsa daiteke irakasle guztiak ere berdin irakats dezaketela, eta beraz, maisu-maistrak trukagariak direla, eta ondorioz, funtzionario izan daitezkeela. Horrexegatik, oposizio izeneko azterketa memoristiko baten bitartez hautatzen dira eta batetik bestera mugitzen dira edonor edozein lekutarako egokia balitz bezala. Alegia, hautaketa hori ez da zentro bateko proiektu pedagogikoaren arabera egiten, edota irakasle horren gaitasunen arabera, baizik eta bere antzinasunaren arabera.

Katalunian, hezkuntza ulertzeko modu horrekin amaitzen saiatu ziren orain dela mende bat. Primo de Riveraren estatu kolpearen aurreko gobernu autonomoek pedagogia aktiboak

bultzatu zituzten. Baina, diktadurak tarteko, eta beste hainbat kontu, ez dugu lortu oraindik hezkuntza aldatzerik, eta XIX. mende amaierako egitura berberarekin jarraitzen dugu. Aldaketa eragozteko fretoa jartzen jarraitzen duen zerbait dago. Galgalana egiten duen zerbait hori zera dela esango nuke: lortu nahi dugun horren kontrako eragiteko diseinatu-ta dagoela egitura guztia.

Hortaz, egin zenuten diagnosiaren lehen elementua da sistema aldatzeko fretoa jartzen duen egitura bat dagoela. Zein lirateke beste bi elementuak?

Bigarrenik, historiako iraultza teknologikorik handienaren aurrean gaude. Abiadura esponentzialarekin ari dira aldatzen gauzak eta bizi tzako arlo guztiak eragiten die horrek: nola ikasten dugun, nola bizi garen, nolako harremanak ditugun beste pertsonekin eta inguruarekin, nola egiten dugun lan, nola informatzen garen, nola hartzen ditugun erabakiak... Eta transformazio teknologiko azkar horrek dakarren aldaketa izugarri horri beste erronka global handi bat gehitu behar zaio: garapen

jasangarriarekin loturiko helburuei erantzuten saiatzea. Horrek esan nahi du gaurko hezkuntzak erronka berri horiei aurre egingo dien norbanaoak, profesionalak eta hiritarrak sortu behar dituela. Baina berezitasun nagusi batekin: eskolak berak erantzuteko duen gaitasuna baino askoz ere azkarrago doala gaur egun mundua. Eta horrek hezkuntzaren bestelako planteamendu bat egitea eskatzen du.

Hirugarrenik, azken urteetan neurozientziaren bitartez hainbat informazio jaso dugu eta aspalditxoan batzuek intuizioz ziotena baieztatzen dute: ikaskuntza ez dela gertatzen eduki finalak transmitituz, baizik eta ikasteko prozesuak aktiboa izan behar duela, eta ikasten duen subjektu horretan zentratu behar duela.

Hezkuntzaren inguruan egindako diagnosian identifikatu dituzuen hiru elementu horiek hezkuntza aldatzea eskatzen dute, hortaz?

Bai, hori da. Baina, gainera, horri guztiari beste elementu bat gehitu behar diogu: zergatik 20-30 urteetan edota 60-70etan berrikuntzarekin hasi eta aitzindari izan ziren eskola haiek ez dira gaur egun erreferentziazko zentro? Horrek ere badu bere erantzuna: sortzen edo eraikitzen den berrikuntza oro, atzera ere, zulo beltz batek irentsiko balu bezala da, sistema horretarako diseinatua dagoelako.

Beraz, hauxe da diagnosiaren elementu zentrala: aurkako erakarmen indarra duen poloa sortu behar da. Alegia, orain daukagun erakarmen poloa beti eskola transmisibora bagaramatza, kontrakoa eragingo duen ekintza polo berri bat sortu beharrean gaude. Eta ekintza polo berri hori ez da sekula eraginkorra izango soilik curriculumaz, lanpostuez, eskolaz, egituraz, testuliburuez, irakasleen formazioaz... hitz egiten badugu. Izan ere, elementu horietako bakoitza bestearekin elkarlotuta dago.

Osotasunaz hitz egin behar dugu eta osotasunaz hitz egiteak esan nahi du “zer-nolako eskola behar dugu?” galderaren inguruan hausnartzea eta horri erantzuna ematen saiatzea, kontuan izanik pertsonok ikasteko dugun moduaren inguruan zientziak

dioena, alegia, “nola ikasten dugu gizakiok?”. Bi galdera horiei erantzunez definitzen dugun eskolak esango digu gainerako elementuek nolakoak izan behar duten: nola formatu behar ditugun irakasleak, nola aukeratuko ditugun, zein rol jokatu duten eskolan, nolakoak izan behar duen ikasleen ikaskuntza-esperientziak, nola ebaluatuko ditugun haurrak, zer-nolako egitura fisikoak behar ditugun, nolako materiala, zer-nolako prozesuak, ebaluazioa nola egingo den...

Beraz, kultura aldaketa batez ariko ginatke hizketan?

Bai, nagusiki, horixe da: kultura aldaketa. Horrek esan nahi du behar dugun eskolaren gainean kontzientzia hartzea eta behar dugun eskola hori eraikitzeko ekintzak martxan jartzea. Horixe da funtsean Escola Nova 21.

Hasteko eta behin, kontuan izan behar da Katalunian Berrikuntza Pedagogikoko mugimenduek dezente indar izan dutela. Ondorioz, belau-naldi berrien artean ere uste izan da orain dela urte batzuk eredugarri gisa imajinatu zen eskola hura horizonte komun bat izan daitekeela denentzat; posible dela aldaketa, eta gainera, bideragarria dela. Testuinguru horretan, azken 10 urte inguruan, hainbat inizatiba egon dira eremu ezberdinetan —eskola publikoan, kontzertatuan, administrazioko profesionalen artean...—, eskola aldatzera bideratuak.

Bestetik, 2009ko Kataluniako Hezkuntza Legeak kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaz hitz egiten du. Eta, beraz, garai horretan ireki ziren zenbait eskola berritan —hutesetik eraiki zirenez—, bakoitzak bere eredu pedagogikoa aukeratu ahal izan zuen. Izan ere, Katalunian eskola publiko bat zerotik hasi behar duzunean, zeuk aukeratutako taldea izan dezakezu bost urtez. Hala, aldi berean norabide berean lanean ari ziren zenbait eskola sortu ziren. Gertakari berria zen hori eremu publikoan. Baina, horrez gain, aldi berean, zenbait eskola kontzertatu ere berrikuntza betean sartu ziren.

Finean, nik *ekosistema* deitzen diodanaren antzeko zerbait sortu zela

“Sortzen edo eraikitzen den berrikuntza oro, atzera ere, zulo beltz batek irentsiko balu bezala da, sistema horretarako diseinatuta dagoelako”

“Hezkuntza arloan eredugarria den hori zergatik ez anekdotikotik atera eta sistemiko bihurtu?”

“Escola Nova 21en muina dagoeneko arrakastaz lanean diharduten eskolen eta irakasleen *knowhow*-a da, hau da, dagoeneko hor dagoen jakintza hori. Sistema guztia kontrara diseinatuta egon arren, miraria egingo balute bezala lanean ari diren irakasle eta eskolen funtzionatzeko era besteen eskura jartzeko sortu da programa hau”



esan daiteke, baina ekosistema hori artikulatu gabe zegoen. Bakoitza bere kasa ari zen lanean.

Artikulatu gabeko ekosistema bat aurkitu zenuen, beraz.

Kontua da eskola eta zentro eredu-garriak eta berritzaileak existitzen zirela, baina euren artean ez zegoela inolako kooperaziorik, eta askotan elkarren aurka ari zirela. Edonola ere, konturatu ginen konfuentzia bat zegoela Katalunian zenbait zentro egiten ari zirenean eta nazioartean pedagogia arloan berritzaile gisa aldarrikatzen zenaren artean. Beraz, geure baitarako pentsatu genuen: eredu-garria den hori zergatik ez anekdotikoterik aterata eta sistemiko bihurtu? Alegia, eskola horiek ez daitezela izan salbuespen, baizik eta arrunt eta ohiko izan daitezela.

Hala, eskola horiekin lanean hasi ginen komunean zituzten jarraitzeko moduko ezaugarrien bila. Eta hortik aterata zen aliantza bat egiteko aukera. Jaume Bofill erakundearekin, Universitat Oberta de Catalunyaarekin, Educaixa-rekin eta administrazioarekin —Generalitat-arekin eta Bartzel-

onako Diputazioarekin lehenik; eta Bartzelonako Udalarekin ondoren— hitz egin genuen, eta Katalunian arrazoï batengatik edo bestearengatik erreferentzialak ziren 30 eskolarekin hasi ginen elkarlanean. Montserrat edota Jesuitak erreferentzialak ziren batzuentzat; El Martinet edota La Maquinista beste batzuentzat.

Ordura arteko jarduteko moduarekin alderatuta diferentzia nagusia zen, aurrez inork inoiz ez zituela eskola horiek guztiak batera bisualizatu erreferentzia bakar gisara, elkarren aurka zeuden eredu bezala baizik. Horri buelta ematen saiatu ginen gu eta erreferentzia bakar gisara haute-mateko behar diren ezaugarri komun horiekin marko bat osatu genuen: “eskola aitzindariaren markoa” deritzoguna, hain zuzen.

Eta zein ezaugarri ditu zehazki eskola aitzindariaren marko horrek?

Ikasleak bizitzako eta elkarbizitzako erronkei aurre egiteko prestatu behar ditu eskolak eta horretarako beharrezkoak diren konpetentziak garatzeko gai izan behar du; gizakiak ikasteko duen moduaren gainean

zientziak zer dioen ikusi eta horretan oinarritu behar du bere jarduna; ikaskuntza praktika horiek hobetzea ahalbidetuko duten ebaluazio sistema garatu behar du; eta azkenik, eskolak etengabe eguneratzeko aukera eman behar die bai ikasleei eta baita irakasleei ere.

Hortaz, programaren xedea da haurren heziketarako marko komun hori Katalunian hezikuntza-sistema osora hedatzea, edo behintzat hala nahi duten zentroetara?

Bai, hori da. Gu plazara aterata gara eta esan dugu: “Begira, hauxe da komunean dugun markoa, eta marko hauxe da guk sistema guztiarentzat nahi duguna. Eta gurekin lan egin nahi duten eskolak baldin badaude, gu laguntzeko prest gaude”.

Uneotan 400 zentro baino gehiago ari dira zuekin lanean.

Nire ustez garrantzitsua da kontuan izatea programaren helburua ez dela zentro horietako bakoitzean transformazioa eragitea, baizik eta kultura aldaketa sustatzea. Egia da zentroetako funtzionamendua eraldatzea ere

badela aldaketa kulturala sortzeko erreminta bat, baina finean, gure nahia da gizartea konbentzitzea eta kontzientziaztea ezin dela zentro bakar bat ere egon lehen aipatu ditugun irizpideak helburutzat ez dituen. Eta hori da kultura aldaketa: gurasoek, zinegotziek, komunikabideek, akademikoek... denok partekatzea marko komun hori.

Horretarako, gakoetako bat da programa hiru urtekoa izatea, gehiago iraungo balu, gu aldaketarako hornitzaileak bilakatuko ginatkeelako, eta guk ez dugu aldaketaren hornitzaile izan nahi, baizik eta inpaktu bidez kultura aldaketa eragin nahi dugu, eta zentro bakoitzak, barrutik kanpora, alegia, behetik gora, bere hobekuntza-prozesua egitea.

Hasieran 30 eskolari aldaketa sistematikoko prozesuan laguntzeko presatatu ginen eta beste 200 eskolaren bidelagun izateko zenbait eraldaketatarako. Baina aurreikuspen guztiak gainditu genituen eta azkenean 480 eskolarekin topatu ginen. Zenbait herri-tako udalak ere jarri ziren gurekin harremanetan, esanaz euren herriko eskola guztiak honetan parte hartzea nahi zutela.

Beraz, udal mailan ere garrantzia hartu zuen Escola Nova 21 programak?

Bai, hala da. Bat-batean sekulako ospea hartu zuen programak. Garbi geratu zen eremu lokalak ere zeresana duela hezkuntzan. Gainera, aldaketa kulturalak transbertsalitate politikoa behar du, eta udalak transbertsalitate politikoa isla dira. Horregatik, akordio bat egitea proposatu genien, eta premisa nagusi batekin lan egitea: zentroek taldean ikastea, alegia, elkarrengandik ideiak jaso eta batera jardutea. Hau da, ikasleekin egiten dugun bezala, kooperaziorako elementuak txertatzea zentroentzat ere.

Hala, Bartzelonako Diputazioaren kasuan, aliantza bat egin genuen eta 8-12 zentro elkartzuta sareak osatu genituen udalerrri mailan, eta udalek sare horiek koordinatzeko teknikariak jarri zituzten.

Azkenik, Bartzelona hirian, “Xarxes per al camvi” sortu genuen (aldaketaren aldeko sareak). Kontuan

eduki behar da Bartzelonako Udalak hezkuntzaren zenbait eskuduntza dituela eta bere egitura Kataluniako gainerako udalerrietatik desberdina dela. Bide horretatik, gainera, Generalitat-eko Hezkuntza Kontseilariaren (lehenengo CIU alderdikoa) eta Bartzelonako alkatearen (Barcelona en Comú alderdikoa) arteko akordioa sinatu genuen. Eta hori izan zen transbertsalitatearen beste isla nabarmen bat, bi mutur politikoak direlako.

Maiatzean aurkeztu genuen Escola Nova 21 programa. Uztail arte utzi genuen izena emateko epea. Irailean Bartzelonako Diputazioarekin sinatu genuen akordioa; handik hurrengo otsailean Bartzelona hiriko konsortzioarekin eta urtebetean 480 eskola ari ziren aldaketa prozesu baterako lanean, horizonte komun bat oinarri hartuta.

Berrikuntza pedagogikoa Kataluniako hezkuntza-sistema osora ari zarete hedatzen?

Nik lau urte besterik ez daramat honetan, baina kontuan izan behar da Escola Nova 21en muina, nagusiki, dagoeneko lanean arrakastaz diharduten eskolen eta irakasleen *knowhow*-a dela, hau da, dagoeneko hor dagoen jakintza hori. Sistema guztia kontrara diseinatuta egon arren, miraria egingo balute bezala lanean ari diren irakasle eta eskolen transmisioko korrea lana egiteko tresna besterik ez da Escola Nova 21.

Egia da askotan diskurtso berriak eraiki ditugula, baina gero praktikan betiko moduan funtzionatzen jarraitzen dugu. Hortaz, zein klabe dira beharrezko eskola batek bere jarduna hobe dezan? Eta bere funtzionatzeko modua alda dezan?

Horrekin lotuta bi gauza esan nahi nituzke. Batetik, hainbat diskurtso praktikara zergatik ez diren pasatzen erakusten duen elementuetako bat da aldaketarako metodologiarik eta adierazlerik ez erabiltzea. Guk ez dugu esaten zentro guztiak modu berdinean lan egin behar dutenik. Guk esaten duguna da zentro batek azterketak gainditzera soilik bideratuta antolatzen badu bere lan egiteko

“Dena erlatiboa eta eztabaidagarria dela onartzen duen sistema batetik gatoz. Eta guk argi esaten dugu: badaude gauza batzuk eztabaidagarriak ez direnak. Derrigorrezko eskolak betebeharrak sozial bat dauka eta horri ezin dio muzin egin”

“Xedea litzateke zentroak erabat autonomoak izatea, jakinik autonomia ez datorrela eskolari esatetik ‘orain zuri tokatzen zaizu aukeratzea eta ardurak hartzea’. Autonomia bereziki trebatzetik dator, gaitzetik, ahalduntzetik. Zerbaiterako gai ez bazara ezin duzu autonomo izan. Eta gaitzeko ardurak ez da soilik hezkuntza-sistemarena, gizarte osoarena baizik”



modua gaizki ari dela funtzionatzen. Norbaitek zera galde dezake: “Aizu, eta zu nor zara esateko zentro bat gaizki ari dela lanean?”. Bada, denok gara nor. Eta zentro bat gaizki ari bada lanean, esan egin behar da. Adibidez, eskola batean umeari zuzenean esaten bazaio “zuk ez duzu balio” edo “matematikak ez dira zuretzat eginak”, bada, zentro hori gaizki ari da lanean. Eta horrek talka eragiten du. Izan ere, dena erlatiboa eta eztabaidagarria dela onartzen duen sistema batetik gatoz. Eta guk argi esaten dugu: badaude gauza batzuk eztabaidagarriak ez direnak. Derrigorrezko eskolak betebeharrak sozial bat dauka eta horri ezin dio muzin egin. Guk umeak derrigortzen ditugu eskolara joatera, beraz, gizarte bezala eskolari exijitu egin behar diogu ume horiek ahalduzko eta gaitzeko, eta hori egiten ez badu, gizarte bezala inkompetenteak garelako izango da.

Logika horrek beste planteamendu batera ere eraman gaitzake. Gutxie-

neko estandar batzuk baldin badaude eskola guztietan eman beharko lirakeenak, nola ahalbidetzen da eskola guztiek gutxieneko hori ematea? Eta nola neurtzen da hori? Emaitzak neurtu behar lirake?

Horrekin ez dut esan nahi emaitzak neurtu behar ditugunik, baizik eta prozedurak neurtu behar ditugula. Adibide simple bat jarriko dut: guk badakigu konpetentzia demokratikoen ikaskuntza —trebetasunak eta balioak barne-hartzen dituen— praktikaren bidez soilik gertatzen dela. Hau da, zuk zure eskolan balio demokratikoak barneratzeko egiten duzun gauza bakarra power point bat pasatzea baldin bada, esan dezakegu ikasle horiek ez dituztela ez gaitasun demokratikoak ez balio demokratikoak ikasiko. Dantzaren adibidearekin erraz uler daiteke hau. Demagun dantza-eskola bateko maisuei galdezen diegula ea nola erakusten duten dantza eta erantzuten digutela “power point diapositiba batzuk pasaz”. Denok dakigu horrek ez daukala inolako

zentzurik eta horretarako berdin-berdin diola dantza-eskola hori ixten badute ere. Bada, gauza bera gertatzen da eskolaren kasuan.

Beraz, aldaketarako prozedurak txertatzeak norbere praktikaren gaineko metakognizioa ere eskatzen du. Hau da, zertan ari garen pentsatzea, eta egiten dugun hori zergatik egiten dugun egiten dugun bezala hausnartzea. Benetan jakin behar dugu zer nahi dugun, zer nahi duen eskolak...

Askotan gertatzen da teoriaren eta praktikaren artean inkoherentziak sortzen direla eskolako jardunean, alegia, gauza bat predikatzen dugula eta beste bat egiten. Esaten dugunaren eta egiten dugunaren artean dagoen arrakala gainditzeko ezinbestekoa da zentroko ikuspegi bat sortzea, eskola komunitate osoak partekatzen duena. Gainerakoan, aldatzeagatik aldatuko dugu, jakin gabe zehazki zergatik ari garen gauzak egiten.

Askotan modaren arabera funtzionatzen dugula esan nahi al duzu?

Bai, hala da. Kontuan izan behar dugu modak beti “nola?” galderarekin daudela erlazionatuta. Baina benetan aldatu eta hobetzeko dagoen modu bakarra da “zergatik?” galderari erantzutera pasatzea, alegia, jomugaren arabera funtzionatzea. Helburua argi izatea da zentro bat ahalduzko eta benetan autonomiaz funtzionatzeko bide bakarra. Soilik zuk zentro gisa hausnarketa sakon bat egin duzunean jomugaren gainean, alegia, zentro gisa lortu nahi duzun horren inguruan gogoeta egina duzunean, izan dezakezu autonomia nahikoa erabili nahi dituzun “nola?” guztiak erabakitzeko.

Nola jartzen dituzue martxan aldaketak zentroetako bakoitzean?

Escola Nova 21ek baditu bi elementu hezkuntza eragileak mugiarazten dituenak. Horietako bat abiadura da. Estrategikoa da elementu hori: azkartasunak erabakiak hartzerara behartzen zaitu, atzera edo aurrera egitera.

Eta bigarren elementua objektibotasuna da. Gure artean, badirudi, irakasle bakoitzak nahi duen eran jardun dezakeela eta praktika oro izan daitekeela egoki edo ez, dena dela

eztabaidagarria, hezkuntza-praktika oro dela erlatibo. Ezin dugu horrela jarraitu. Serioak izan behar dugu. Hezkuntza oinarritzko eskubide bat dela onartzen badugu, argi izan behar dugu eskolak ahalduzailea eta transformatuzailea izan behar duela, eta hori ezin da zalantzan jarri, ez da eztabaidagarria. Alegia, eskola bat ahalduzailea eta transformatuzailea ez bada, zerbait ez da ondo egiten ari eta aldatu egin behar du.

Aliantzaz mintzo zarete zuek, baina hezkuntzan ere ez al da ari nagusitzen elkarren arteko norgehiagoka?

Lehen aipatu dudan bezala, hezkuntza oso gaizki tratatzen den eremua da. Eta inbidia eta ezinikusi handiak daude. Adibidez, eskola batek ondo funtzionatzen badu, haren kontrako esamesak eta gorrotoak hasten dira, norgehiagoka moduko bat hasten da zentro baten eta bestearen artean, eta errudunak bilatzen dira nonahi norbere praktikak eta emaitzak justifikatu nahian. Escola Nova 21en helburua, hain zuzen, norgehiagoka horrekin haustea da.

Azkenean jendea elkarri aizkorakadaka dabilen sistema bat eraiki dugu. Eta, ideiak juxtu kontrakoa behar luke izan: “Egin dezagun aliantza handi bat”. Titularra “Escola Nova 21” baldin bada, azpitudularra zera litzateke: “Hezkuntza-sistema aurreratu baterako aliantza”. Xedea litzateke zentroa erabat autonomia izatea, jakinik autonomia ez datorrela eskolari esatetik “orain zuri tokatzen zaizu aukeratzea eta ardurak hartzea”. Autonomia bereziki trebakuntzatik dator, gaitzetik, ahalduztetik. Zerbaiterako gai ez bazara, ezin duzu autonomo izan. Eta gaitzeko ardura ez da soilik hezkuntza-sistemarena edo eskolena, edo irakasleena, baizik eta gizarte osoarena. Gizarteak eskolari eskatu behar dio gaur egungo ikasleen premiei erantzun egoki bat eman diezaiela, baina horretarako erremintak, baliabideak, metodologiak, adierazleak... behar ditu, eta beste ezeren gainetik, logika ahalduztaile bat behar du, alegia, entitate, nortasuna behar du.

Autonomiaz funtzionatzeko eta

hezkuntza-proiektu sendoak aurrera eramateko eskoletan lan-talde egonkor bat beharko da, ezta?

Bai, noski, klaustro egonkor bat behar da horretarako. Escola Nova 21en barruan guk defendatzen dugun ezaugarrietako bat da klaustroak egonkorak izatea batetik, eta bestetik, klaustro horiek zentroaren hezkuntza proiektuari atxikiturik egotea. Baina hori ez da ezer berria. Katalunian Rosa Sensat maistra sonatu eta berritzailea izan zen, Escola del Bosc Bartzelonako eskola publikoa zuzendu zuena, eta berak aukeratu zuen lan-talde osoa, hezkuntza proiektuaren arabera. Eta, gaur egun ere, horixe da, adibidez, Finlandian egiten dutena, sistema osoa ia erabat publikoa den herrialde horretan. Hezkuntza proiektu sendo bat nahi bada, derrigorrez, proiektu horretarako egokien izango diren irakasleak aukeratu behar dira.

Honen guztiaren atzean, ez ote dago “publikoa” kontzeptua beraren gaineko ikuspegia jokoan?

Bai. Kontua da, gaur egun, hemen, Katalunian, “publikoa” gutxi gorabehera langile publikoek zer izango den erabakitzen duten hori dela. Baina publikoa bada, denona da, eta, beraz, gizarte osoak erabaki behar du zer izango den eta nolakoa izango den. Guztiok daukagu zeresana horretan.

Kontua da hemen hezkuntza eskubidea lan-eskubideekin nahastu dugula. Hezkuntzarako eskubidea, ekitatezko egoera batean kalitatezko heziketa jasotzeko haurrek duten eskubidea da, eta ez langile publikoek baldintza jakin batzuetan lan egiteko duten eskubidea. Horretarako eskubidea du langile publikoak, noski. Baina hori beste eskubide bat da: eskubide laboralak: ez hezkuntza eskubidea. Eta guk bi eskubideak nahastu egiten ditugu.

Eskolak publikoa izan behar duela soilik esatea, eztabaida gaiztoa egitea da. Publikoa izan behar du, noski. Nire ustez bai behintzat, baina publikoa izan behar du, klaustro egonkorrekin, funtzionarioekin eta oposizioekin, kalitatearekin... Hortaz, eskolak publikoa izan behar al du? Bai, dudarik gabe. Baina

“Escola Nova 21en barruan guk defendatzen dugun ezaugarrietako bat da klaustroak egonkorak izatea batetik, eta bestetik, klaustro horiek zentroaren hezkuntza proiektuari atxikiturik egotea”

defini dezagun lehenik hori diogun zertaz ari garen. Zeren publikoa esatean ari bagara esaten hemendik bost urtera ez dakigula eskola horrek hezkuntza proiekturik izango duen, zein irakasle izango dituen, umeez zer ikasiko duten... bada nire erantzuna da ez dudala horrelako eskolarik nahi. Eta hain zuzen ere, eskola publikoaren alde nagoelako ari naiz hau guztia esaten. Arduraz begiratzeko diodalako gaur egungo eskola publikoari, eta ikusten dudalako eraldatzen ez bada, heziketarekin loturiko hainbat erronkari eskola kontzertatuek soilik erantzun ahalko diotela.

Programa hau martxan jarri zenutenetik inolako aldaketarik ari zarete antzematen?

Bai. Izugarritzko diferentzia nabaritzen dugu. Zentzu guztietan. Adibidez, komunikabideetan, gaur egun araua da guk aldarrikatzen ditugun balioetan oinarritutako hezkuntza. Bestetik, gurasoen jarrera ere asko aldatu da. Eta gaur egun ohikoa da gurasoek, eskolara doazenean, bertako hezkuntza proiektuaren inguruan galdetzea. Edota, esate baterako, lehen irakasleek gurasoekin egiten zituzten bilerak nagusiki burokratikoak ziren; orain, berriz, pedagogikoak.

EKARPENAK 1

JAZARPENA

Eskola- eta lan-jazarpena: aurre egin diezaiokegu guztion artean

Indarkeriaren definizioa oso konplexua da, indarkeria mota asko baitago. MOEk (Munduko Osasun Erakundea) honela definitzen du indarkeria: norberaren aurkako, beste pertsonen aurkako edo komunitate baten aurkako indarkeriaren edo botere fisikoaren nahitako erabilera, lesioak, heriotza, min psikologikoa edo garapen-nahasteak sor ditzakeena.

Indarkeria mota bat da jazarpena, eta gero eta gehiago jabetzen gara kidekoen artean gertatzen den jazarpenaz. Kidekoen arteko jazarpena testuinguru ugaritan gerta daiteke. Artikulu honetan, batez ere eskolan eta lanean gertatzen den jazarpenari buruz hitz egingo da.

Eskola-jazarpena

Ikerketa askok erakutsi dutenez, ikas-

Naiara Ozamiz eta Miren Agurtzane Ortiz

EHU. Medikuntza
eta Erizaintza
Fakultatea.
Neurozientzietako
departamentua.
Psikiatriako saila.

le askok izan dute kidekoen arteko indarkeriarekin kontaktua eskolako urteetan zehar. Eskola-jazarpena hitzezko erasoen bitartez, eraso fisiko eta psikologikoen bitartez edo jazarpen sozialaren bitartez egin daiteke. Erasotzailearen helburua beste ume bati mina egitea eta hura menderatzea da.

Eraso fisikoaren artean, bultzadak, ostikadak, ukabilkadak... izan daitezke; hitzezkoen artean, hitzezko irainak, adibidez; psikologikoen artean, beste pertsonaren autoestimua aurkako erasoak, biktimari segurtasun falta eta beldurra sorraraz diezazkioketenak; eta, eraso sozialaren artean, beste pertsona alde batera uztea izan daiteke helburua.

Eskoletan gertatzen den jazarpenean, askotarikoak izan daitezke protagonistak:

1. Biktimaria: zama negatibo guztia jasotzen duen pertsona.
2. Erasotzailea: biktimari zuzenean jazarpena dion pertsona.
3. Erasotzailearen jarraitzaileak: jazarpena horiek hasi ez badute ere, zuzenean parte hartzen dute jazarpenean.
4. Erasotzaile pasiboak: ez dute rol aktibo bat hartzen jazarpenean, baina erasotzaileari laguntzen diote.
5. Erasotzaile posibleak: eskola-jazarpena onartzen duten pertsonak. Jazarpena errespetatu egiten dute, nahiz eta publikoki

ez esan.

6. Behatzailea: jazarpena ikusten duten eta horren aurrean inolako jarrerarik hartzen ez duten pertsonak.
7. Defendatzaile posibleak: jazarpenarekin ados ez badaude ere, biktima defendatzeko jokabiderik hartzen ez dutenak.
8. Biktimaren defendatzaileak: biktimari laguntzen dioten bakarrak. Beraz, protagonista asko ikusten ditugu jazarpenaren agertoki horretan, baina horietatik bakarrak dira biktima defendatzen dutenak.

Eskola-jazarpenak ondorio larriak izan ditzake biktimarengan. Eskolaporrota, autokontzeptu negatiboa, aldarre-nahasteak, bakartze soziala, antsietatea eta depresioa izan daitezke ondorioak. Kasurik larrienetan, suizidioarekin lotutako pentsamenduak ere bai. Gainera, haurtzarora eta nerabezarora identitatearen garapenerako garai garrantzitsuak direnez, epe luzeko ondorioak ere izan ditzake.

Eskola-jazarpenari aurre egiteko, garrantzitsua da prebentzioa egitea, baina baita jazarpen-egoerei aurre egitea ere. Eskolak, familiak eta ikasleek aktiboki parte hartu behar dute programetan. Gaur egun, Euskal Herrian 52 ikastola ari dira Finlandian sortutako KiVa programa ezartzen. KiVa programa hori oso arrakastatsua izan da Finlandian, eta jazarpen-egoeren prebentziorako eta egoera horiei aurre egiteko programak eskaintzen dituzte.

Lan-jazarpena

1980. hamarkadan, Heinz Leymann-ek lan-giroan gertatzen zen eskola-jazarpenaren antzeko jokabide bat aztertu zuen, eta *mobbing* hitzarekin definitu zuen jazarpen mota hori. *Mobbing* hitza ingeleseko “to mob” aditzetik dator, eta jazartzea esan nahi du.

Etologiaren ikuspuntutik, Konrad Lorenz-ek *mobbing* terminoa definitu zuen, animalia batzuek espezie bereko koalizioetan indartsuagoak ziren animaliei eraso egiten zieten adierazteko.

Lan-jazarpenaren barnean, honako jokabide hauek izan daitezke: biktima



mari besteekin duen komunikazioa galaraztea, adierazten ez uztea, inork hitz egin ez diezaion saiatzea, biktimari bere gaitasunetik oso azpitik edo oso gaintetik dauden lanak agintzea, eta jazarpen psikologikoa edo fisikoa egitea.

Mobbing egoerek ere ondorio larriak izan ditzakete biktimarengan. Normalean, antsietatea agertzen da gehien. Antsietateak biktima porrotarekin, frustrazioarekin, autoestimu-gabeziarekin, distorsio kognitiboarekin eta loarekin arazoak izatera eramanezake. Horregatik guztiagatik, langilearengan mendekotasunak, depresioa, nahaste paranoideak edo, kasu larrienetan, suizidioarekin lotutako pentsamenduak eragin ditzake. Bestalde, fisikoki, biktimiek nahaste psikosomatikoak edota nahaste organikoak izan ditzakete. Eta, gizarte- eta familia-mailari dagokienez, mesfidantza eta haserre senti ditzakete inguruan dituzten pertsonetik, bakartuta senti daitezke.

Eskola-jazarpenari aurre egiteko programak badaude, baina, gaur egun, ez dago lan-jazarpenari aurre egiteko programa askorik. Horrelako programak garatzeko, hainbat erakundek parte hartu behar lukete. Hasteko, administrazio publikoek jazarpenari aurre egiteko kanpainak egin behar lituzkete. Eskolek eta lantokiak ere jazarpenaren aurka egin behar lukete, komunitatean jazarpenaren aurkako kultura sor dadin eta lantokietan dauden pertsonak babesa dutela ziurta dadin.

Ondorioak

Artikulu honetan aztertu daitezkeenez, eskolan gertatzen den jazarpenaren fenomenoaren antzekoa gertatzen da lan-esparruetan ere.

Etologoek, animaliak aztertzean ikusi dute, haiek instintu erasotzailea dutela bizirik irauteko. Instintu horrek biziraupenerako balio omen die. Gizakiok ere instintu hori ba omen dugu, baina ez dugu ahaztu behar izaki biopsikosozialak garela, eta, nahiz eta gure arbasoek instintu hori erabili bizirauteko, guk bilakaera garrantzitsua izan dugula eta gai garela arazoei eta bizirauteari beste modu batean aurre egiteko. Zaila da, indarkeriaz betetako gizarte honetan, indarkeria edo jazarpen-egoerak ez errepikatzea lan-eremuan, eskolan eta horrelako esparruetan. Baina pertsonak geldiaraz ditzake jazarpen-egoera horiek, bakoitzak bere lekutik, lan egiten duen erakundetik edo gizartean betetzen duen rolaren ikuspuntutik, jazarpenak salatuz, biktimari lagunduz edo ingurunea heziz. Bandurak esan zuenez, bai haurrek, bai inguruan ditugun pertsonen gure portaera sozialak errepikatze joera dute, eta alderantziz. Baina, portaera antisozialak bultzatzen diren bezala, posible da portaera prosozialak bultzatzea ere. Eta modu egozia izan daiteke hori, bai eskolan, bai lan-giroan jazarpen-egoerak gerta ez daitezen. Askok egin dezakegu denok, jazarpen-egoerak gerta ez daitezen, eta, egoera horien aurrean, pasibotasuna jarrera desegokia da, horrek beti erasotzaileari indarra ematen baitio.

EKARPENAK 2

EGOKITZAPENA

Egokitzapena guztion ardura da

Hezkuntzan egunerokotasunak hein batean ikusezin egiten ditu egunerokoak: arauak, ohiturak, sozializazioa, deskantsuak, espazioen banaketa, edo **egokitzapena**. Oraingo honetan honi helduko diogu asmo xume batez: elkarrekin hausnartzea eta irakurlearen hausnarketa piztea. Honenbestez lan honen xedea egokitzapenari buruzko gogoeta plazaratzea izango da, hainbat proposamen iradokiz prozesu hau guztiontzako ahalik eta osasuntsuena izan dadin.

Urteroko legez, uda amaierarekin eta ikasturte hasierarekin bat haurtzaroko eta eskolaratze aldiko momentu garrantzitsuenetarikoa bat helduko da, ume txikien **egokitzapen aldia**. Aldi honek ezinegona sortzen du hezkuntza komunitate guztian, bai noski umeengan baina baita familia eta irakasle-hezitzaileengan ere. Aldia deitzen bazaio ere, prozesu batez ari gara, familia testuingurutik eskola testuingurura aldatzea dakarrena.

Abiapuntu gisa, egokitzapenaren **baldintza periferikoetatik** hasiko gara. Ikastetxearen tamaina eta egituraren arabera baliteke irailaren hasieratik **eguerdiko zerbitzuak** eskaintzea eta familia batzuk zerbitzu horiek erabili behar izatea. Ahal den neurrian umea minimoki egokitua izan arte behintzat atzeratu beharko litzateke horren erabilera. Gelak,

EHUko Leioako Kalitatezko Haur H@zkuntza taldea

korridoreak eta sarrera, **txukun eta erakargarri** badaude garai horretan horrelaxe mantendu behar dira kurtso osoan zehar. Ordena desordena bihurtu behar da txikien geletan, baina objektu eta ekipamenduaren osotasuna eta erakargarritasuna zainduz eta bermatuz. Gelek umeen adinaren arabera **mugikortasuna** ahalbidetu behar dute. Hau da, gelan zehar umea une oro zabal eta eroso mugitu ahal izatea bermatuko da. Honen harira, 0-1eko geletan, maila alde handia egonda, bi eremu bereizi beharko liriateke, bata oraindik etzanda dabilentzako eta beste bat zutunik dabilentzako. Baina multzo honetako baldintzen artean garran-

tzitsuen gelan **bi hezitzaile** egotea da, uneoro umeren batekin zerbait egin behar bada, gelan dauden beste umeak bere begiradapean geratu ahal izateko.

Egokitzapenari berari edo **gako zentralei** buruz, garrantzitsuenetatik hasiko gara: **zaintzak**. Hezitzailearekiko harremana eraikitzeke prozesuaren hasiera eta muina da. Eskolan burutzen den edozein zaintza lehenik familiak burutu beharko luke hezitzailearen edo irakaslearen aurrean: lehen pixoihal aldaketa, eta posible izanez gero, lehenengo bazkaria edota lehenengo loa, ordura arte umeari nola egin zaion eta nola gustatzen zaion jakinaren gainean egoteko. Aipatutako harremana posible egin eta trataera ahal den pertsonalizatu burutu ahal izateko, lehenengo egunetako **txandak** ondo antolatu behar dira, ahal den ume kopuru txikiarekin. Lehenengo bi egunetan ondotoxoa joan bada ere, hirugarrenean sarritan ustekabeak gertatzen dira, nolabait umea eskolaratzea behin betirako zerbait dela konturatzean. Beraz, arreta berezia jarri hirugarren edo laugarren egun honetan, **atzerabueltak** eman daitezkeelako. Ildo beretik, asteburuaren osteko egunak ere kontuan hartu behar dira, gogorra egiten baitzaie eskolara bueltatzea. Egunak aurrera joan ahala, eskolara

Egokitzapenaren dekalogo

1. **Prozesu naturala:** Edozein izaki, testuinguru aldaketaren aurrean ahalegin gehiago edo gutxiago eginez eta arrakasta gehiago edo gutxiago lortuz, egokitzen da.
2. **Familiatik haur eskolarako igarobidea:** Egokitzapenak, umeak bere eskolatze goiztiarraren ondorioz egunero egin behar duen familiatik haur eskolarako igarobidean laguntzea du helburu.
3. **Lotura-galera:** Ordura arte ama edo aitarekin bizi izaniko harreman pribilegiatua denboran murriztu egiten da hasieran ezezaguna den pertsona batekiko harremanarekin ordezkatzeko. Aurrerantzean harremana oso pribilegiatua izan daiteke.
4. **Adina:** Lotura afektiboa denborarekin batera eraikitzen denez, umeak nagusitzen diren heinean, banaketaren aurreko intentsitate desberdineko erresistentziak sortu daitezke.
5. **Familia:** Ez da erraza ezezagun baten eskuetan zure umetxo uztea. Profesional horrekin fidatzea funtsezkoa da. Familiak, behin eskolatze goiztiarra egitea erabakiz gero, eskolarekin lankidetzan aritu behar du umeari laguntzeko.
6. **Profesionalak, hezitzaileak, irakasleak, laguntzaileak:** Pertsonalki egokitzapen prozesu baterako prestatzeaz gain, umetxo edo ume txiki bakoitza ezagutu behar du: bere ohi-turak, gustuak, estiloa, behar-rizanak eta familiak. Hasiera batean, familiak eskaintako informazioari, eta ostean bere behaketa propioaren batze sistematikoari esker.
7. **Antolaketa:** Zentroak egiten duen proposamen orokorretik haratago joan behar da; prozesua beti ad-hoc, neurrira, izan behar da, egutegia, ordutegia, edo burutu beharreko jarduerak barne.
8. **Taldeak:** Taldeak sortzeko irizpide ohikoak, matrikulazioa, adina edo abizenak badira ere, umearen ordutegia, erritmoa, pertsonalitatea edo heldutasun maila kontuan hartu daitezke.
9. **Ikastetxea:** Ume berriak hartzeko instituzioa bere osotasunean inplikatu behar da.
10. **Termometroa, umearen osasuna da:** Umetxoaren edota ume txikiaren ongizateak, batez ere fisikoak eta emozionalak, egokitzapen prozesuaren berri ematen du.

bisita tarteak **luzatzen** doaz, baina gerta daiteke umeren bat urduritzen hastea. Konturatu bezain pronto gelatik ateratzea komenigarria da, helburua umea lasai irtenda hurrengo egunean lasai eta gustura bueltatzea da-eta. Egun hauetan arreta berezia jarri behar da umea **gaixotzen** bada, egokitzapena berarentzat larregi denaren adierazlea litzatekeelako. Beraz, berriro ere hutsetik hasi, arreta eta malgutasun gehiagorekin oraindik. Atal honekin amaitzeko, azpimarratu nahiko genuke egokitzapena **ez dela behin betirako** burutzen. *Egunak* egoteaz gain, opor guztien osteko lehenengo egunetan ohiko errutinetara bueltatzea gogorra da, edota kurtso guztietako lehenengo egunak, era apalago batean bada ere, egokitzapen aldikotzat hartu beharko lirake. Horregatik, lehen zikloan eta bigarrenean ere egokitzapen prozesua ematen da, bigarrenean erritmoa berreskuratzeko erraztasun gehiago badago ere. Umearen **adina** oso kontuan hartu behar den beste zerbait da, asko baldintzatzen duelako zeregina. Izan ere umeak geroz eta nagusiagoak izanda, jarduerak konplexua-

goak dira, talde handiagoak, gaitasun gehiago, beraz adi antolaketarekin.

Hau guztia behar den bezala aurrera eramateko familiak jakinaren gainean egon behar dira eta horretarako **bi-lerak** ezinbestekoak dira. Baina hau ez da nahikoa. Informazio trukeaz gain, familiarekin alde biko armonia eta konplizitatea lortzeak berebiziko garrantzia izango du. Komenigarria izaten da ikastetxera lehenengoz datozen ume guztien gurasoekin **bilera bateratu** bat egitea, matrikularen ostean, informazio orokorra argitzeko: eraikina, arropa eta diru kontuak, egokitzapen prozesuaren azalpena, ordutegiak, txanden zentzua eta abar zehaztuz eta honen guztiaren garrantzia azpimarratuz. Irailaren hasieran, **bigarren bilera** talde osoaren familiarekin egin behar da txandak eta zeregin zehatzak argitu ahal izateko, egokitzapena gai nagusitzat harturik: txandak, ordutegiak, helburuak gogoratzea eta batez ere lasaitasuna transmititzea. Ikasturtearekin batera edo beranduago hasi daitekeela ere argitu behar zaie familiei. Guraso asko oporretan daude garai horretan eta beraien umea egun batzuk

beranduago egokitzen hasteak ez dakar inolako arazorik. Bi bileraren ostean eta egokitzapenaren hasierarekin batera **familiaren elkarrizketak** egitea gomendatzen da, umearen orduko egoera eta errutinak ahalik eta ondoen ezagutzeko. Urte biko gelako bileretan bereziki, txandak ezartzeko irizpideak argitu beharko lirake: aurreko eskolatzea izan den, momentuko esfinter kontrol maila zein den eta alde zuzeneko bilakaeraren berri izanik. Esfinter kontrolean egokitzapenak sortutako urduritasuna dela eta atzerakadak gerta daitezkeenez gurasoak jakinaren gainean jartzea komenigarria da. Ume berriak edota 0-2an eskolaturik egondakoak erritmo desberdina daramate egokitzapen honetan, beraz txandak antolatzea kontuan izango dugu afera hori. Eta, azkenik, bilera guztietan, familiei gogoraraziko zaie gurasoek eurek momentu batean prozesuari amaiera eman behar diotela. Beste inork ezin dio eman-eta.

Ondoren oso labur bildurik egokitzapenaren aldagaien adinen eta egunen arabera gure **proposamena**.

EKARPENAK 2: EGOKITZAPENA

	0-1 urte (8 ume)	1-2 urte (13 ume)	2-3 urte (18 ume)
1. eta 2. eguna	<ul style="list-style-type: none"> Guraso bakar bat bere lekuan. Esan hurrengo egunean gelatik 2-3 minutuz irten beharko dela, agur laburra eginda Gehienez 4 ume berri batera 30'-60' gehien jota Sarrera irteerak malgutasunez egingo dira Seaskan hasieran eta hazten joanez gero, lurrean 	<ul style="list-style-type: none"> Guraso bakar bat bere lekuan, hurrengo egunean irteeratxo bat egin beharko du. Gehienez 4-5 ume berri batera, beharrezkoak diren txandak eginez (2 edo 3). 30'-60' gehien jota Sarrera irteerak malgutasunez egingo dira Gela erakargarri eta bakarreko jarduerarako prestatuta egon behar da 	<ul style="list-style-type: none"> Guraso bakar bat beraientzako prestatutako lekuan. Bigarren egunetik aurrera irteeratxo bat egin beharko du. Gehienez 6 ume berri batera, beharrezkoak diren txandak eginez (2 edo 3) 45'-60' gehien jota Sarrera eta irteera malgutasunez egingo dira Gela erakargarri eta umeen jarduerarako prestatua izan behar da Bigarren egunean gurasoak pixoihalaren aldaketa egiten hasiko dira
3. eguna	<ul style="list-style-type: none"> 60'-ra luzatu Gurasoari esan hurrengo egunean gelatik tarte luzeagoz irten beharko dela, umeari esan eta gero 	<ul style="list-style-type: none"> 60'-ra luzatu Aurreko urteko edo txandakako hiru edo laurekin pixoihal-aldaketarekin hasi gurasoak hezitzailearen aurrean, ostean lasai eta elkarrekin etxera joan ahal izateko Gurasoari esan hurrengo egunean gelatik tarte luzeagoz irten beharko dela, umeari esanda 	<ul style="list-style-type: none"> 60' Ondo dagoen umearen kasuan gehienez 15' minutu luzatzeko aukera eskaini. Pixoihala aldatu edo komunera laguntzeko txandak eta denborak antolatu, ahal den ume gehienei egin ahal izateko. Gurasoari esan hurrengo egunean gelatik tarte luzeagoz irten beharko dela, umeari esanda Gurasoek pixoihalaren aldaketa egiten jarraituko dute
4. eguna	<ul style="list-style-type: none"> 90' Gurasoek pixoihal-aldaketa bat egin beharko dute Gurasoari gogorarazi hurrengo egunean gelatik tarte oraindik luzeagoz irten beharko dela, umeari esan eta gero 	<ul style="list-style-type: none"> 90', gelatik irteera eta pixoihal-aldaketa ondo antolatu, hiru txanda badira bitan berrantolatuz. Gurasoek pixoihala-aldaketarekin jarraitu, txanda bakoitzeko haur guztiak aldatu arte. Gurasoei gogoratu hurrengo egunean gelatik tarte oraindik luzeagoz irten beharko dela, umeari esan eta gero 	<ul style="list-style-type: none"> 90', gelatik irteera eta pixoihal-aldaketa ondo antolatu, hiru txanda badira bitan berrantolatuz. Pixoihala aldatu edo komunera laguntzeko txandak eta denborak antolatu, falta diren umei egin ahal izateko. Gurasoak eskolatik irten eta eskuragarri egon, badaezpada Hezitzaileak egiten ditu pixoihalaren aldaketak
5. eguna	<ul style="list-style-type: none"> 2 ordu Gurasoek beste aldaketa bat egin eta biberoi bat eman beharko lukete 	<ul style="list-style-type: none"> 3 ordu Hezitzaileak lehen pixoihal-aldaketa egingo du Gurasoak eskolatik irten eta eskuragarri egon, badaezpada 	<ul style="list-style-type: none"> 3 ordu Talde osoa Jostaldian kalera joango da taldea Ura eta ogi edo fruta zatiak eskaini beharko zaizkie
6. eguna	<ul style="list-style-type: none"> 2 ordu Gurasoak eskolatik irten eta eskuragarri egon, badaezpada Hezitzailea, zaintzen arduradun 	<ul style="list-style-type: none"> 3 ordu Hezitzaileak lehen pixoihal-aldaketa egingo du 	<ul style="list-style-type: none"> 3 ordu Talde osoa Jostaldian kalera joango da taldea Ura eta ogi edo fruta zatiak eskaini beharko zaizkie

7. eguna	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ordu • Ume talde biak batzen dira • Gelak talde osorako prestaturik egon behar du, leku babestu batekin haur txikientzako eta beste bat zabalagoa, nagusientzako 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 ordu • Ume talde biak batzen dira • Hezitzaileak bigarren pixoihaldaketa egingo du 	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ordu • Taldean aritu • Jostaldian kalera joango da taldea • Ura eta ogi edo fruta zatiak eskaini beharko zaizkie
8. eguna	<ul style="list-style-type: none"> • 3-4 ordu • Bertan bazkaldu eta siesta egingo du 	<ul style="list-style-type: none"> • 4-5 ordu • Bertan bazkaldu eta siesta egingo du • Edariak edo askariak eskaini behar dira 	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ordu • Taldean aritu • Ura eta ogi edo fruta zatiak eskaini beharko zaizkie
9. eguna	<ul style="list-style-type: none"> • 4-5 ordu • Edariak edo askariak eskaini behar dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordu-tegi osoa bete 	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ordu + • Eskolaren antolaketaren arabera jantokia eta siesta zerbitzua, edo eta eskola bera arratsaldean eskaini daiteke
10. eguna	<ul style="list-style-type: none"> • Ordu-tegi osoa bete 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordu-tegi osoa bete 	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ordu + • Eskolaren antolaketaren arabera jantokia eta siesta zerbitzua, edo eta eskola bera arratsaldean eskaini daiteke

Hau proposamen xume bat baino ez da. Ikasturte hasierak bai familian baita eskolan sortzen duen kezka edo ezinegona handia da. Hori berori leuntze aldera, egokitzen prozesuan planifikazioak duen garrantzia nabarmendu nahi izan dugu.

Proposamen honen oinarrian umearen ongizatea dago. Hortik abiatuta haur eskola eta gela antolatzeko oinarritzko irizpide batzuk baino ez ditugu aukeratu eta zentzuz konbinatu, antolaketarik egokiena lortzeko asmoz. Familiaren eskutik lehenen-

goz eta ostean haur eskolak umea kulturaren munduaren oinarriak sortzen ditu. Oinarri horien sendotasunak umearen oraina eta etorkizuna baldintzatuko ditu. Gogora dezagun guztiok partaideak garela, egokitzen guztion delako.



Argazkia: Kattuka haur-eskola.

EKARPENAK 3

EUSKARAREN BIZIBERRITZEA

Euskara biziberritzeko ahaleginak: nondik norako berriak

‘Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen’ (2017) liburua Durangoko Azokaren 52. edizioan plazaratu genuen, baina Eibar eta Gasteiz izan zituen lehenago geltoki, lanak ibilaldia aurretik hasi baitzuen, Udako Euskal Unibertsitatearekin egindako ikastaroetan.

Ikastaroetan eta liburuan parte hartu duten protagonista gonbidatuei ohiko konfort-eremutik irteteko eta hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko marko, diskurtso eta praktika zahar-berriak urratzeko, birpentsatzeko edota proposatzeko eskatu genien. Ekarpinak lau alor edo ardatzen inguruan biltzen ditu liburuak: familia eta aisialdia, eskola, lan-mundua eta hedabideak. Baina liburuak baditu, atal horiez gain, irekiera eta itxiera atal bana, hurrenez hurren Mikel Irizarrek eta Belen



Deustuko Unibertsitateko Xabier Landabidea eta Jone Goirigolzarri, eta EHUko Ibon Manterola.

Urangak idatziak. Bien ala bien testuetan irakur daiteke euskalgintza eraberritzeko palankak identifikatu eta aktibatu behar direla, eta hainbat giltzarri ematen dituzte horretarako: akordio politiko esanguratsuak, eragileen artean partekatutako helburu eta ibilbideak, eta irekitasuna.

Jarraian, liburuko lau ardatzen inguruan egileek idatzitakoak laburbiltzen eta ehuntzen saiatuko gara, euskara biziberritzeko gaur-biharko ahaleginak irudikatzen, pentsatzen eta antolatzen laguntzeko asmoz.

Familia eta aisialdia

Atal hau Paula Kasares, Jone Miren Hernandez, Jaime Altuna eta Kike Amonarrizen eskutik dator. Kasaresek familia du langai, eta Hernandezek eta Altunak, berriz, gaztetxoan aisialdia. Kike Amonarrizek, berriz, aurreko bi ekarpenetan aurkeztutako

ideiak gaurko lan eta egitasmoetan zer mailatan aplika daitezkeen du aztergai, Eibarko ikastaroan garatutako talde-dinamiketan partaideek aipatutako ideiak oinarri hartuta.

Paula Kasaresen atalean, euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren gaineko ikerketen azterketa kritikoa aurkituko du irakurleak, eta baita *hizkuntzaren transmisioa* kontzeptuaren halako argitze bat ere. Autoreak azaltzen du euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipena familiako transmisioarekin lotu dela gehiegitan, eta argudiatzen du familiako transmisioa ez dela nahikoa euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten jarraipenerako. Kapituluaren bigarren atalean, eta hizkuntza-sozializazioaren paradigmaren oinarrituta, Kasaresek proposamen teoriko berri-tzailea aurkezten du, bai euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipena-



ren ikerketari begira (bere hitzetan, ezin baita “euskararen belaunez belauneko jarraipenaren xedea ama-hizkuntza kontzeptu estatikoaren bidez adierazi”), bai eta haurrak euskaraz hazteko diseinatzen diren plangintza eta esku-hartzeei begira.

Jone Miren Hernandezek eta Jaime Altunak “Gu gazteok” (Euskararen Aholku Batzordea, 2016) lan etnografikoa dute beraien ekarpenaren ardatz. Lan horretan, gazteen bizi-mundua eta horien hizkuntza-ohiturak, praktikak, jarrerak eta diskurtsoak dituzte aztergai, gazteen euren bizipen eta sentimenduetatik abiatuta eta sarri ohikoak zaizkigun sinplifikazioak eraitsiz. Autoreek “zer da gurean nerabe edo gazte izatea?” galdera hartu dute ikerketaren abiapuntu gisa, nerabeek euren buruak nola definitzen eta ezaugarritzen dituzten ezagutzea euskararekiko duten lotura hobeto ulertzeko gakoa dela iritzita. Ikerketak aditzera eman du euskarak egungo gazte-kultura osatzeko eta sendotzeko gaitasuna galdu duela eta gazteen unibertsoa irudikatzerakoan euskarak oso indar gutxi duela. Horren zergatien gainean hausnartzean, Hernandezek eta Altunak, bai eta Urangak ere, euskarak nerabeen aisialdiko jardueretan duen presentzia urria nabarmentzen dute.

Autoreen iritziz, aisialdia gazteen identitatea osatzeko ezinbesteko gunea da, eta, hortaz, funtsezkoa da euskara giltzarri den esparru horretan txertatzea, nerabeen bizimoduan zeresana izango badu. Ildo horretan, Kike Amonarrirek Eibarko ikastaroan partaideengandik jasotako mezuetako bat bereziki interesgarria da. Partaideen esanetan, bada garaia hizkuntza-politikaren indar handiena aisialdian eta eskolaz kanpoko jardueretan jartzeko nahiz euskarazko eskaintza sendotzeko.

Eskola

Ane Ortegak eta Leire Diaz de Gereñuk kapitulu bana idatzi dute EAEko hezkuntza-sistemak euskararen biziberritzean egindako lanaren eta aurrera begira dituen erronken inguruan. Josune Zabalak, berriz, Eibarko ikastaroan gaiaren inguruan parte-hartzaileekin egindako dinamikaren berri ematen digu. Ortegaren arabera, euskararen biziberritze-prozesuan gazteen eta haurren adin-tarteetan lortu den euskalduntzearen parekorik ez da ezagutzen munduko hizkuntza-komunitate gutxiagotuetan. Halaber, D eredua era guztietako testuinguru soziolinguistikoetara zabaldu izanak euskararen hiztun-profil berriak agerrarazi ditu gazteen artean, eta,

hain zuzen, Ortegaren ustez, hiztun gazte horiek “talde estrategikoa” dira euskararen egungo agertokian, bai eta aktibo garrantzitsuenetakoa ere. Gazte hiztun berrien artean identifikatutako profilak direla eta, bereziki atentzioa eman digu euskararen gaitasuna faktore gako izateak, gazteok euren burua nolako euskal hiztuntzat duten ikusteko orduan. Zehazki, azpimarratu nahi genuke ahozko jariora, erregistro-aldakortasuna eta lekuan lekuko euskara-aldaera bat menderatzea direla Ortegak aipatzen dituen osagai funtsezkoenetako batzuk. Emaizta horiek, Ortegak azpimarratzen duen moduan, eskolan euskara irakasteko estrategia eta baliabide didaktikoen auziari eragiten diote bete-betean, eta, hain zuzen ere, horixe du hizpide Leire Diaz de Gereñuk, besteak beste.

Euskarazko irakastereduetan izaera esperimentalak sustatu beharra aldarrikatzen du Diaz de Gereñuk, eta ildo horri tiraka, autoreak erakusten du ikuspegi komunikatiboa ez dela bere ondorio guztiekin barneratu euskararen irakaskuntzan, ez curriculumean, ez eta hainbat baliabide didaktikotan ere. Ahozko euskararen irakaskuntzaren ageriko mugak erakutsi ondoren, Diaz de Gereñuk argudiatzen du testu-generoen

EKARPENAK 3: EUSKARAREN BIZIBERRITZEA

“Aisialdia gazteen identitatea osatzeko ezinbesteko gunea da, eta, hortaz, funtsezkoa da euskara giltzarri den esparru horretan txertatzea, nerabeen bizimoduan zeresana izango badu”

“D eredu era guztietako testuinguru” soziolinguistikoetara zabaldu izanak euskararen hiztun-profil berriak agerrarazi ditu gazteen artean, eta, hain zuzen, hiztun gazte horiek ‘talde estrategikoa’ dira euskararen egungo agertokian, bai eta aktibo garrantzitsuenetakoak ere”.

ikuspegitik egindako proposamen didaktikoak izan daitezkeela eraginkorrenak ikasleak ahozko euskaran trebatzeko.

Lan-mundua

Euskara biziberritzeko lan-mundua-
ren erronken gaineko hausnarketa Patxi Saezen eta Txerra Rodriguezen eskutik dator. Patxi Saezek lan-mundua euskara normalizatzeko giltzarria

dela defendatzen du. Autore horren iritziz, gaur egun gizarteak belaunaldi berriak euskalduntzeko egindako ahalegin guztia galbidean jartzen da lan-munduan; izan ere, gazteak, eskola amaitu eta laneratzean, erabat erdarazkoa den munduan murgiltzen dira, eta haien euskara-gaitasuna murriztea zein galtzea dakar horrek. Saezen esanetan, orain arte euskara biziberritzeko paradigman tresna nagusia eskola izan den bezalaxe, ziklo berrian, lan-mundua izango da euskara gizartearen erdigunean jartzeko giltza. Egiteko horretan, euskara beharrezko bihurtzea funtsezkotzat jotzen du autoreak, beharrezkoa ez dena desagertu egiten baita, eta, aldi berean, euskara gizakiaren behar natural eta sozio-funtzionalekin lotzea proposatzen du. Saezen iritziz, lanak funtzio horiek guztiak bete ditzake, eta, hortaz, ezin daiteke euskara biziberritzeko eskaintzen duen aukera alferrik galdu.

Lan-mundua euskalduntzeko egitekoari, esparruaren izaera poliedrikoa eta polifonikoa aintzat hartuta, esperimentazioari atea irekiz, sare-lana burutuz eta produktu eta zerbitzu berriak asmatuz zein orain artekoak homologatuz, zabalduz eta “salduz” ekin behar zaiola proposatzen du Rodriguezek. Era berean, euskara lan-munduan normalizatzeko, Eibarko ikastaroko talde-dinamketan agertutako hainbat gai eta erronka ere baditu hizpide: euskararen balio erantsia, lidergoak eta zuzendari-tzaren aldeko jarrera ezinbestekoa, bezero engaiatuaren figura, kontsumitzaileen euskaraz artatzeko eskubidea, bezeroen presionatzeko indarra, herri-administrazioko lanpostuetarako hizkuntza-eskakizun funtzionalak, enpresa euskaldunen lehenestea zein hizkuntza-klausulen ezarpena, eta lanbiderako euskal hezkuntza-sistemaren euskarazko eskaintza handitzea, besteak beste.

Hedabideak

Alberto Barandiaranen eta Gorka Salcesen ekarpenek osatzen dute “Hedabideak” atala, Xabier Landabidearen sintesi-lanarekin batera. Hiru autoreek hedabideen balizko arnagune-funtzio soziolinguistikoari heltzen

diote, hainbat heldulekutatik bada ere, hipotesi bikoitz honi helduz aldi berean: hizkuntza ez hegemonikoek arnasa hartu eta garatzeko toki edo eremu ahaldunduak behar dituztela dioen hipotesiari, batetik, eta arnagune tradizionalak ahalduntze hori gerta dadin nahikoak ez direla dioen hipotesiari, bestetik.

Barandiaranek euskarazko hedabideen kontsumoaren nolokotasunari eskaintzen dion begirada diakronikoak ondorio argi bat dakar: tokiko hedabideen garrantzia Euskal Herriko 216 proiektu edo produktu komunikatiboen artean. Kontsumo tradizionalagoaz gain, digitalizazioak eragindako transformazioen erdian euskarazko hedabide nazionalak eta tokikoak deskribatzen ditu egileak, eta azken urteotako eraldaketa teknologiko, industrial eta sozialek utzitako panorama berria marrazteko eta etorkizuna argitzeko egin beharko dugun galdera hirukoitz batekin amaitzen du: zergatik irakurtzen/ikusten/entzuten ditugu euskal hedabideak? Zer garrantzi edo eragin dauka kontsumitzen dugunak? Zer da gure hizkuntzan irakurri, entzun, ikusi nahi edo, finean, desio duguna?

Salcesek euskararen perspektiba soziolinguistiko garaikideen eta etorkizunerako balizko euskarazko hedabideen proiektio sozio-funtzionalen ibilbide teorikoagoa proposatzen digu, eta honako hauek jartzen ditu mahai gainean: irudikapen geosentimentalak, erabilera motak, arnagune mediazentriko, digital eta afisikoak, eskaintzaren osagarritasuna, hizkerak eta identitatea, hedabideen eta kalearen arteko disonantziak, presentzia publikoa eta normaltasuna, kontsumo mediatikoaren sozializazio izaera eta neurketa egoki eta propioen beharra. Sintesi gisa, identitate berriak hizkuntza-aldaera *zikinei* lotuta agertzen direla ondorioztatzen du egileak, hiztun berriei edota kaleko erabilerari lotutako erregistroak zilegitzeko tresna sozial ahaltsuena komunikabideak direla ondorioztatuz, bai eta osagarritasuna lantzea hiztun taldearen barneko aniztasunari erantzun arrakastatsua emateko *sine qua non* baldintza izango dela ere.



BIZIPOZA



“BIZIPOZAren elkarteak eta komunikabideak elkarlanean” jardunaldia

Maiatzaren 26an, larunbatean, 9:00 - 13:30, Hernaniko ORONAn

Sarrera: **Letre Elizegi* (Bizipoza),
**Joxe Mari Auzmendi* (Hilk Has).

Zer jaso eta nola zabaldu.
**Amagola Muzika* (Prentsa idatzia),
**Xabier Madariaga* (Telebista).

Nola egin ikusgarri?
**Gotzon Barandiaran* (Idazlea),
**Estibalitz Esteibar* (Bertsotzale Elkarte)

Sare sozialetan lana, nola egin eraginkorra?
**Arkaitz Sukuntza Albortz*, TAPUNTU kooperatiba.

MAHAI INGURUA: BIZIPOZAK zer egin lezake informazio-sarea egiteko?
**Amagola Muzika* dinamizatzailea,
**Beatriz Sosa* (Chrysalis) Bizipozaren kidea +
**Xabier Madariaga*, *Estibalitz Esteibar*, *Gotzon Barandiaran* eta *Arkaitz Sukuntza*.

Informazioa eta izena ematea: www.bizipoza.eus



GALDEIDAZU

ZER GARRANTZI DU GORPUTZAK IKASKUNTZA-PROZESUAN?

Gorputza beti presente dagoela eta ikaskuntza-iturri dela oinarritzat hartuta, hezkuntzan ustez gorputzari arretarik eskaintzen ez zaion agertoki honetan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gure buruari galdetzea zer ikaskuntza ari garen kontzienteki edo inkontzienteki sustatzen eta beste zer ikaskuntza sustatu nahiko genukeen.

Proiektu pedagogiko bat da Gorputzaldiak, eta gorputza, mugimendua eta dantza bultzatzen ditu hezkuntza formalean irakasteko eta ikasteko prozesuetarako tresna pedagogikotzat; horrela, hurbilagotik ezagutu ahal izan dugu hezkuntzan gorputzak zer egoera duen, eta hainbat hezkuntza-eragilerekin batera aritu gara, ekin-tzan oinarritutako beste metodologia batzuk txertatzeko.

Eskolaren gorputzaldia

Hezkuntzan nahiz gizarteko gainerako esparruetan, gorputzaren eta buruaren bereizketan oinarritutako gorputz-ikuspegiaren herentziak eragin handia izan du gure burua eta besteak hautemateko moduan. Herentzian jasotako ikuspegi hori gorputzaren instrumentalizazioaren eta objektualizazioaren bidez gauzatu da denbora luzean hezkuntzaren esparruan, eta ezagutza kognitiboak barneratze euskarri hutsa izan da; gorputza geldiaraztea, kontrolatzea eta heztea izan da helburu nagusia, ikaskuntzarako oztopo izan ez dadin. Hala ere, egoera horretan ere, gorputzek ikasten jarrai-



**AMAIA NAVASCUES
eta MAIDER URRUTIA**

**'Gorputzaldiak'
egitasmoko kideak**

tzen dute: emozioak blokeatzen eta zapaltzen ikasten dute, mugimenduaren eta bat-batekotasunaren bulkadak desaktibatzen, beren zentzumen-bideak ixten, etab. Horrez gain, azpimarratu behar da Gorputz Hezkuntza ikasgaia izan dela tradizionalki gorputzarekin ikasteko eremu bakarra, eta duela oso gutxi arte kirolarekin lotuta egon da nagusiki.

Gorputzaren gaineko begirada hori aldatzen ari den arren, eta, poliki-poliki, ikaslea begirada osatuago batetik eta metodologia berrien bidez ulertzen saiatzen garen arren, gaur egun oraindik, mahaien atzeko aulkietan eserita igarotzen dute ikasleek egunaren zatirik handiena, eta estatikotasuna da nagusi ikasgeletan ikusten diren paisaietan. Dena den, gero eta hezkuntza-eragile gehiago ari dira hainbat planteamendu aintzat hartzen: askotariko adimenak, adimen emozionala edo pedagogia aktiboagoak eta parte-hartzaileagoak, adibidez; horrez gain, eskolako altzariak edo eremuak berriro diseinatzen ari dira eragileak, bai eta mugimenduan oinarritutako proiektuetan parte hartzen ere, eta horrek adierazten du egiteko beste modu batzuetarako pausoak ematen ari direla.

Puntu honetan, hezkuntza formaleko hezkuntza-eragileekin egindako lanean ikusi dugunez, hezkuntza-etapek askotariko errealitateak jasotzen dituzte, eta, ikasleak goiko etapetara igarotzen diren heinean, gero eta gehiago urrutiratzen dira mugimendu-

ohituretatik eta beren gorputzarekiko harremanetik. Esate baterako, Haur Hezkuntzan, mundua gorputzaren bitartez aztertze eta aurkitze espazioa dute gaur egun; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, eskakizun akademikoek eta irakasteko eta ikasteko prozesuak garatzeko moduek asko mugatzen dituzte gorputza, emozioak eta norberarengandik abiatutako esperientzien eraikuntza.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu fokua gorputzetara zuzentzea eta ikasgeletan gorputz horiek nola erabiltzen diren eta zer ohitura eta trebetasun garatzen dituzten galdetzea; baita gorputzetik abiatuta, zer-nolako ikaskuntzak sustatu nahi ditugun go-goeta egitea eta horretaz jardutea ere.

Gorputz esanguratsuak ikasuntza-prozesuan

Hainbat egilek landu dute gorputzera arreta zuzentzeak duen garrantzia, haurrek beren inguruko mundua ekintzaren bitartez ezagutzen dutela esaten baitute; hau da, mugimendua ikasteko baliabide naturala da. Izan ere, txanpon beraren bi aldeak dira mugimendua eta gorputza; alde batetik, gorputzak mugimendua behar du eraikitze, fisiologikoki eratzeko nahiz askotariko funtzioak garatzeko. Bestetik, mugimendua eta ekintza gorputzaren funtsezko funtzioak dira. Hortaz, mugimenduaren ondorio da gorputza, eta mugitzeko sortua da, eta, beraz, ez dago garapenik mugimendurik gabe. Horrela, bizitzak berezkoa du mugimendua, ikaskuntza-iturri delako eta esperientziak eraikitzen dituelako.

Ikuspegi horretatik, D. Fischman-en (2008) lanean oinarrituta, “esperientzia konstruktibo gisa ulertzen da ezagutza: ekintza bakar batean hautematen, sortzen eta aldatzen da. Ikuspegi horrek ekintza, pertzepzioa, emozioa eta ezagutza hartzen ditu barnean”. Modu horretan, ikaskuntza-, pentsamendu- eta sormen-prozesuak gorputz osoari dagozkio, eta ez garunari soilik; eta sentipenak, emozioak, mugimenduak eta ezagutzak hezurramituta daude. Azken batean, pertsonak bere kompetentziak ezagutzeko eta garatzeko, beharrezkoa da haren gorputzetik iristen diren ongizate eta plazerezko

sentipenak aurkitzea.

Alde horretatik, ikaskuntzarekin lotutako mugimenduaren ahalmen batzuk adierazpenarekin eta komunikazioarekin, sozializazioarekin eta identitate-zentzuarekin zerikusia dutela uste dugu.

Hitzekoa ez den adierazpenaren bitartez, sentipenak, pertzepzioak, premiak, nahiak, interesak eta abar adierazten dira. Gorputza da gure lehen mailako hizkuntza, eta, askotan, argi esaten du komunikatzeko beste bide batzuek adierazi ezin dutena. Y. Levyren (2008) lanean azaltzen denez, “prozesu dinamikoa da mugimendua, eta, mugimenduaren bidez, emozioek, pertzepzioek, motibazioek eta pertsonen arteko elkarrekintzek adieraztea lortzen dute.” Bereziki interesgarria da adierazpide hori haurtzaroan, hitzen bidez ezin dutenez, hitzekoa ez den adierazpenak errealitate ulertzen, lantzen eta aldatzen laguntzen baitie.

Sozializazioa da gizakiaren ezaugarri nagusietako bat; hau da, izaki sozialak gara beste ezeren gainera, eta, beraz, funtsezkoa da talde-sentipena sendotuko duten eta elkarbizitzaren oinarritzko hainbat balio (errespetua, integrazioa edo lankidetzak) garatuko dituzten jarduerak bultzatzea. Existitzeko, ezagutzeko eta asetzeko beste gorputz batzuk behar dituzten gorputzez ari gara; gorputz horietan, barnekotasunak eta kanpokotasunak bat egiten dute, eta badira herentzian jasotakoaren eta ikasitakoaren arteko gorputz-dinamikak ere: markak, keinuak, jarrerak, mugimenduak eta aldatzeko beharrak.

Gorputzak historia, herentzia, aginduak, bizipenak, irudiak, etab. dira, baita ere, eta horrek guztiak eraikitzen du gizabanakoaren nortasuna eta nortasun kolektiboa. Horregatik da interesgarria gutaz dugun irudi horretara begirada zuzentzea, proiektatzen dugun irudira, eta gure gorputz sentikorrari entzutea. Ikasleek beren gorputzari buruz duten ezagutza ez da beren gorputz-errealitatearen ezagutza puntuala edo kontzeptuala; bizipenetan oinarritutako ezagutza globala eta funtzionala da, beren buruaz irudi bat egiteko aukera ematen diena. Nerabegaroko etapa bereziki sentikorra da nortasunaren garapenarekin, aldaketa

Haur Hezkuntzan, mundua gorputzaren bitartez aztertze eta aurkitze espazioa dute gaur egun umee; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, eskakizun akademikoek eta irakasteko eta ikasteko prozesuak garatzeko moduek asko mugatzen dituzte gorputza, emozioak eta norberarengandik abiatutako esperientzien aurkikuntza.

Ikasleek beren gorputzari buruz duten ezagutza ez da beren gorputz-errealitatearen ezagutza puntuala edo kontzeptuala; bizipenetan oinarritutako ezagutza globala eta funtzionala da, beren buruaz irudi bat egiteko aukera ematen diena. Nerabegaroko etapa bereziki sentikorra da nortasunaren garapenarekin, aldaketa fisiologiko, morfologiko, psikologiko eta emozional handiko prozesu batean murgilduta baitaude ikasleak; gorputza aldatzen ari zaie etengabe, eta gorputzetik abiatutako lanketa oso lagungarria izan daiteke garai horretan.

fisiologiko, morfologiko, psikologiko eta emozional handiko prozesu batean murgilduta baitaude ikasleak; gorputza aldatzen ari zaie etengabe, eta gorputzetik abiatutako lanketa oso lagungarria izan daiteke garai horretan.

Gorputza, ezagutzak eraikitzeko bitartekari

Orain arte azaldutako planteamen-
duak jaso ahal izateko eta hezkuntza-
jardunbideetan mugimenduaren eta
ekintzaren bidez ikaskuntza sustatuko
duten aldaketak bultzatu ahal izateko,
beharrezkotzat jotzen dugu gorputz
sentikorra sustatzea, hala, gorputza
eduki edo xede huts gisa lantzeaz
gain, askotariko ikaskuntzetan sakon-
tzeko bitartekari gisa erabil dadin.

Honako hauek egin ahal izango di-
tugu gorputzaren bitartez: norberaren
ezagutzan sakondu, adierazi, aukerak
zabaldtu, sormena eta irudimena era-
bili, mugak ezagutu, gure emozioetan
sakondu, besteekin topo egin, eraba-

kiak hartu, esperimentatu eta erreality-
tea aldatu.

Beraz, gorputza bitartekari gisa
hartuta, ikaslearen garapen integrala
sustatzeko aukera izango dugu, eta
alderdi psikologikoa, kognitiboa,
soziala, afektiboa eta fisikoa hartuko
ditugu aintzat. Hezkuntza formalaren
testuinguruan, oinarrizko zehar-kon-
petentzien eta oinarrizko kompeten-
tzia espezifikoen bidez jasotzen dira
curriculumean pertsona osatzen duten
alderdi horiek guztiak. Beraz, alderdi
horiek landu ahal izateko, kompeten-
tziak nola garatuko ditugun aztertu
behar dugu, mugimendua txertatuz eta
edukiak gorputzuz, hortik ezagutzak
eraikitzeko.

Gure esperientziaren arabera,
hezkuntza-errealitate askotan erre-
pikatzen diren kezkek eta oztopoak
daude oinarrian gorputza eta mug-
imendua dituzten proiektuak aurrera
eramateko orduan, besteak beste:
eskoletako espazioen egituraketa

zurruna, irakasleek zeregin eta eran-
tzukizun gehiegi hartzea beren gain,
irakasteko eta ikasteko prozesuen
xede akademikoen eta edukien satura-
zioa edota mugimenduarekin lotutako
hezkuntza-proposamenak garatzeko
tresna zehatzak behar izatea.

Hala ere, agertoki konplexu horre-
tan, gorputza gero eta pisu handiagoa
hartzen ari da irakasteko eta ikasteko
prozesuan. Fokua gorputzetan jar-
tzeko kezka hori eskoletako arraka-
letatik lerratzen ari da, eta elkarriz-
ketetan, artikuluetan, dinamika
esperimental txikietan edo ikasteko
tresna gisa mugimendua proposatzen
duten berariazko proiektuetan gor-
putzen ari da. Gaia pil-pilean dago,
eta, beraz, une egokia izan daiteke
guztion artean kozinatzen jarraitze-
ko eta gorputzak eta mugimenduak
hezkuntza-prozesuetan eskaintzen
dizkiguten aukerak aktibatzen la-
guntzeko harremanak eta lankidetzak
ezartzeko.

Orue eskola

LANBIDE HEZIKETA

GIZARTERATZEA
Goi Mailako Zikloa

ADMINISTRAZIOKO
eta FINANTZETAKO
Goi Mailako Teknikari Zikloa

2018-2019 IKASTURTEA

EMAN EZAZU IZENA!

Psikomotrizitate
integratzailea

Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ordu

Eguneratze-ikastaro modura homologatuta, 2018ko martxoaren 27ean
Hezkuntza Sailak Hezkuntza Sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez,
honako kodearekin: 1568822001



Institut de Formació Contínua-IL3
UNIVERSITAT DE BARCELONA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO




Tel. 946 300 058



www.orueeskola.org

ARGITALPENAK



PINTTO ETA MUSIKA AFRIKARRA
Magali Le Huche

TTARTTALO

Pintto bildumako ale berria dugu honakoa. Bertan, *Pintto* eta Bakary zebra Afrikara joan dira, eta altxor handia aurkitu dute han: musika-tresnak! Musikaz betetako bidaia eskainiko digu liburuak. Izan ere, irakurtzeko istorioaz gain, 16 doinu daude entzungai liburuan. Horretarako, ikonoaren gainean sakatu behar da.



TXORI BATEN PORTRETA EGITEKO
Jacques Prévert / Mordicai Gerstein

KALANDRAKA

Arteari eta sormenari buruzko alegia bat da liburuak. Prévert-en poema bat irudiz hornitu du Gersteinek, hiru izariko mundutik bi dimentsiokora igaroaz. Efimeroari buruzko kontakizun surrealista da: ikusten eta desiratzen dugun hura saiatzeko gara atzematzen, baina instant batez besterik ezin dugu atxiki. 7 urtetik aurrera dago gomendatua.



BIHOTZEN SENDAGILEA
Kristien Aertssen

TTARTTALO


Ipuin goxoak bildumako ale berri bat da honakoa. Bertan, egunero bezala, prest dira lagunak tearen orduan kartzan egiteko. Baina, gaur, Hartz lokartu egiten da etengabe, Untxiaren belarriak erori egiten dira, eta berandutu egin da Katagorri... izan ere, buztanera itsatsi zaio Triku! Gaizki hasi dugu eguna gero!



TXAKURRAK ETA GAILETAK
Linda Chapman / Kate Hindley.

IBAIZABAL

Lagunik onenen gozotegia bildumako ale berria da liburuak. Hannah eta Mia lagunek hiriko txakurtegiko Ateak Zabali eguneko ospakizuneari laguntzea erabaki dute eta, pixkanaka, laguntzailerak inguratuko dituzte. Hala, Abi ize-neko neska bat ezagutu dute, eta gaizki pasatzen ari dela dirudi. Baina ez dute lortzen hark bihotza zabaltzea, harengana hurbiltzeko ahalegina eginga ere.



NOLA DASTATU ILARGIA
Michael Grejniec

KALANDRAKA

Animaliek ilargiak zein zapo duen jakin nahi dute. Dortokak mendirik garaienera igotzea erabaki du ilargia dastatzeko, baina ez da iritsi eta beste animalia batzuei laguntza eskatu die. Batzuk handiak dira, beste batzuk oso garaiak; baina inor ezin da iritsi. Azkena saga da. Iritsiko da? Guztien arteko loturari eta txikiaren garrantziari buruz hitz egiten digun pilaketan ipuina da.



ZAZPI ANTNUMEAK
Teresa Lima / Tareixa Alonso

TXALAPARTA

Baziren behin zazpi antxume eta amarekin bizi ziren etxola batean basoaren erdian. Egun batez, Ahuntz Amak atera egin behar izan zuen eta bakarrik utzi zituen; baina joan aurretik, halaxe esan zien: "Ez ireki atea inori, otsoa hor berrera ibil daiteke eta". Ipuin herrikoia, gure txikiak "otso maltzurrei" beldurra galtzeko ezin hobea da. Irudi epel eta originalez hornitua.

PROPOSAMENA

Ekainberri museoa

Historiaurrea norbere azalean sentituz

Altxor historiko eta artistiko paregabea gordetzen du Sastarrain bailarak Zestoan: Ekaingo kobazuloa, Paleolitiko garaiko labar-artearen adierazle bikainenetariko bat. Haitzuloa bera bisitatzeko aukera oso mugatua denez, handik metro gutxira, haitzuloaren erreplika bikaina eraikia dago, Ekainberri museoan. Margolanak ikusteaz gain, antzinatean bezala ehizatzen eta sua egiten ikasteko aukera eskaintzen du museoak, besteak beste.



Labar artearekin lotu ohi dugu Ekainberri museoa eta bertan eraikia dagoen haitzuloaren erreplika, baina bisitaria berehala ohartuko da hori baino gehiago eskainiko diola Ekainberriko egonaldiak: antzinateko bizipenak norbere azalean sentitzeko aukera. Bereziki haur eta gazteei egokitutako hezkuntza material eta jarduera ugari aurkituko ditu bertan. Hala, ikasleek historiaz eta arteaz modu atseginean eta entretenigarrian ikasteko aukera

izango dute, beti ere gida espezializatuen eskutik. Besteak beste, margolanak egin, sua sortu eta ehizatzeoko aukera izango dute. Gainera, museoak adin tarte bakoitzari egokitutako programa didaktikoak eskaintzen ditu.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek, adibidez, paleolitikoan Sastarrain bailaran bizi ziren animaliak ezagutuko dituzte. Lehen gizakien antzera marraztuko dituzte animaliak, erreplikan zehar animaliak bilatu eta deskribatzen saiatuko dira...

LHko 3. eta 4. mailetan, suarekin lotutako ekintzak burutuko dituzte ikasleek, Paleolitikoan suak zuen garrantziaz jabetzeko. Kobazuloko iluntasuna sentituko dute, eta lehen gizakiek bertan marrazteko erabili beharko luketen sua lortzen saiatuko dira, besteak beste. Eta LHko 5. eta 6. mailetako ikasleek, berriz, Paleolito garaiko gizakien ehiza tresnak ezagutuko dituzte, eta horiekin basahuntzak eta orkatzak ehizatzen saiatuko dira. Gainera, erreplikan labar artearen eta

ehizaren arteko erlazio berezia azalduko diete gidek.

DBHko ikasleei dagokienez, lehen ziklokoek Ekaingo giza taldearen bi ezaugarri nagusi aztertuko dituzte: pintura eta ehiza. Horretarako, kobazuloko irudiak ikertuko dituzte eta ehizaren mundura hurbilduko dira, janaria eta bestelako lehengaiak lortzeko estrategiak diseinatuz. “Bi orduren ondoren ondorio argi bat behintzat izango dute: Ekainean ez zuten ehizatzen zuten hura marraztu”, diote museokoek.

DBHko bigarren zikloko ikasleak, aldiz, Ekaingo artista bihurtuko dira. Alde batetik kobazulo barruko artea, labar artea, ikusi eta ikertzeko aukera izango dute. Bestetik, aire zabalean eta beste euskarrien gainean egindako artearen, arte erabiltokorra deitutakoaren, inguruko informazioa jasoko dute.

Batxilergoko ikasleei arkeologoen lana gertutik ezagutzeko aukera emango die museoak. Hala, arkeologia esperimantalaren bidez, Ekaingo gizakien bizimodura hurbilduko dira. Gidak gizaki haiek sua, pintura eta ehiza nola egiten zuten erakutsiko die, eta, taldetan banatuta erreplikara

sartuko dira, labar artea aztertzeko.

Gizateriaren ondare

2008an Unescok Gizateriaren ondare izendatu zuen Ekaingo kobazuloa, Paleolitiko garaiko Madeleine aroko margolan ikusgarriak dituelako, duela 13.000 urte ingurukoak, egoera ezin hobean mantenduta. Kobazuloan (eta baita erreplikan ere) 70 animalia-irudi daude, gutxi gorabehera. Zaldia da gehien ageri dena, eta Ekaingo zaldimultzoa arte franko-kantabriarraren irudirik aberatsenetakotzat hartzen da, eta espezie horretan, horma-mihise onena. André Leroi-Gourhan etnologo, arkeologo eta historialari frantziarrak “zaldi multzorik bikainena Kuaternarioko arte guztian” izendatu zuen. Hartzak, oreinak, kapridoak... ere ikus daitezke Ekainean.

Bertako altxorraren kontserbazioa bermatzeko, haitzuloa inoiz ez da egon publiko zabalari irekia, eta oso mugatua da haitzulora sartzeko baimena jasotzen duten pertsona kopurua. 2008an, ordea, Ekaingo kobazuloaren erreplika inauguratu zuten, haitzulotik metro gutxira, eta, hala, denentzat eskuragarri gelditu da Ekaingo altxor milenarioa.



Ekainberri museoa

Non


Zestoako Sastarrain bailaran dago museoa. Zestoatik bertatik hasten da berdegunez inguraturiko oinezko ibilbide atsegina museoraino, 20 minutu ingurukoa. Autoa uzteko aparkalekua dago Zestoan bertan.

Sarrerak

Ekainberri.com webgunearen bidez, *info@ekainberri.com* helbidera idatzita edo 943 868811 telefono zenbakira deituta lor daitezke. Sarrerak Zestoako Informazio Bulegoan jaso behar dira erreplikara abiatu baino lehen.

Ordutegia

Asteartetik ostiralera 10:00etatik 18:00etara dago zabalik, eta asteburu eta jaiegunetan 10:00etatik 19:00etara. Uztailen eta abuztuan zehar astelehenetan ere zabalik egon ohi da.



ATZEKO ATETIK



HARREMANA

IKER IRRIBARRIA PILOTARIA

Txikitatik jorratu izan dut besteekiko harremana, eta hezkuntza hitza aditu bezain laster etortzen zait harreman hitza. Hezkuntzaren funtsa da harremana, eta zortez ikastola xume bateko kide izan naiz urte askoan zehar. Irakasleekin izandako harreman horrek, klasekideekin (orain nire lagunartea osatzen dutenak) izandako harreman horrek hezi nau, ikastolako edukiak baino gehiago.

Duela urte batzuk, Ingalaterrara joateko aukera izan nuen, eta bertan ikastolan ikasitako hainbat arlo jorratzekoa. Orain sentsazioa daukat lagun haiekin, giro ederrean, ingelesa ez dela *vocabulary*, *listening* eta *grammar*, harreman horiekin mila aldiz ederragoa dela hizkuntza, eta noski, hezkuntza.

Neure gaztelania ere horrelako pasarte batzuekin bete nezake, baina badakit ez nintzatekeela gaur egun daukadan erraztasunarekin ariko ez banintz kirol arloan jardungo, bertan

trebatu bainintzen, lagun errioxarrekin pilotan eta beste selekzioetako gazteekin saskibaloian.

Jakintza ikastolako irakasle gehienekin harreman ezinobea izan genuen klasekide gehientsuenek, eta iruditzen zait ikasle bizia askoz ere samurragoa egiten dela horrela, nik neuk ere gorrotatu izan ditudalako ikasgaiak irakasle gogaikarriengatik.

Gozatu ederra hartu nuen bigarren batxilergoa bukatu ostean irakasle, tutore eta gurasoekin eginiko afarian, harreman onik ez balitz zaila izango litzatekelako horrelakorik egitea. Gogoan dut baita ere, zirikatzen ari ziren bi ikasle nola bidali zituen dirua emanda irakasleak txokolatzeko palmeren bila... lezio ederra.

Horrexegatik aukeratu nuen neure unibertsitateko ikasketak egiteko harreman estuko unibertsitate bat, non irakasleak ezagutzen gaituen eta gurekiko harreman bat sortzen den. Eta behin eta berriz pentsatzen dut irakasleekiko harremanak zuzenean

duela harremana hezkuntzarekin.

Harreman horrek, ikasgaiko arlo teknikoak adina hezten gaituelako. Eta pena bat badaukat: ez nago gustura unibertsitateko irakasleekin dudan harremanarekin. Klasekideak ikaragarriak dira, baina badut arantza bat, ez diodala inongo irakasleri *kariñorik* hartu, pasiloetan kasurik apenas, beste kanpusetara noiznahi joaten dira...

Lehen esandakoaren arabera, zapo-re gazi-gozo batekin geratzen naiz, gaitzuegatik soilik ikasten ari ote naizen edota klasera ikaskideekin egotera joaten naizen, ez dudalako *feeling*-ik irakasleekin. Gogoz kontra joate horrek ilusio galera bat eragin dit, baina zortez, laster bukatu eta *feeling* gehiago dudan lanean jarriko dut burua. Eskerrak pilotan dugun taldean ilusioa eta giro ona ditugun, gure hezkuntzaren, etorkizunaren eta norberaren oinarria hori baita. Ez al da gure hezkuntzaren funtsa harremana? Kontuan hartu ama eta aita...



AZKUE
FUNDAZIOA

B  **Tuber**
Izan **euskal** YouTuber

Zure
SEME-ALABEK
aisia euskaraz
bizitzeko

YouTuber
ikastaroa

DOAN
14-16 urte



INFO+

AZKUE FUNDAZIOA
944 02 80 81



Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 26an eta 27an LEIOAN

Uztailaren 2an, 3an eta 4an DONOSTIAN

hh
hik hasi

IKASTAROAK: **Pedagogia Sistemikoa** - Mugak jarri autoestimua zainduz - **Mindfultyoga** - Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia - **Psikoterapia eta gorputza hezkuntzan** - **Suizidioaren prebentzioa** - **Antzerkia hezkuntzan** - **Matematika eskuetara LHn** - **Gure eskolak mila kolore dituelako** - **Wilhelm von Humboldt** - **Ikasleak erakarri euskaraz egin nahi izan dezaten** - **Komunikazio Ez Bortitzan sakontze maila** - **Dislexia** - **Hezkuntza eredu parekidea** - **Barne sormena lantzeko estrategiak** - **Mindfulness (Arreta osoa)** - **Irakurketa eta idazketa konstruktibista** - **Jolasa eta jolas terapeutikoa eskolan** - **Garapen pertsonala irakasleentzat** - **Heriotzaren psikopedagogia** - **Materia eta energia galak LHn** - **Adimen Emozionala hezkuntzan** - **ARTikertuz, Ikus-Artean oinarritutako ikasketa** - **Yoga eta kontzentrazio teknikak hezkuntzan**

Informazioa eta izena ematea **www.hikhasi.eus** helbidean